

PEDAGOGIA

Irati MONREAL MAZKIARAN

**ESKOLA INKLUSIBOA:
METODOLOGIA
KOOPERATIBOETAN
OINARRITUTAKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

TFG/GBL 2020

upna
Universidad
Pública de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

**Grado en Maestro de Educación
Primaria /**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua
Grado en Maestro en Educación Primaria

Gradu Bukaerako Lana
Trabajo Fin de Grado

ESKOLA INKLUSIBOA:
METODOLOGIA KOOPERATIBOETAN
OINARRITUTAKO PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Irati MONREAL MAZKIARAN

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

Ikaslea / Estudiante

Irati MONREAL MAZKIARAN

Izenburua / Título

Eskola inklusiboa: metodologia kooperatiboetan oinarritutako proposamen didaktikoa

Gradu / Grado

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

Ikastegia / Centro

Giza, Gizarte eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas,
Sociales y de la Educación

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

Zuzendaria / Director-a

Lucia PELLEJERO GOÑI

Saila / Departamento

Psikologia eta pedagogia saila / Departamento de psicología y pedagogía

Ikasturte akademikoa / Curso académico

2019/2020

Seihilekoa / Semestre

Udaberria / Primavera

Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluak hau ezartzen du: "ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu".

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarri, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak oinarri bat ematen digu irakaskuntzaren inguruko informazioa ezagutzeko. Ezagutza hauek edozein prozesutan minimoak dira ikaskuntzaren oinarria osatzen dutelako. Adibidez, nire proposamen didaktikoa ulertzeko eskola inklusiboaren ideia eta metodologia kooperatibo nabarmenenak, batez ere POI metodologia, ezagutzea ezinbestekoa da. Kontzeptu hauek lanaren lehenengo eta bigarren ataletan azalduta daude.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak edukiak nola irakatsi eta edukiak ulertzean zentratzen dira eta honek laneko atal teorikoa garatzeko bidea eman dit. Lan honetan, alde batetik eskolaren ideia nola urteetan zehar eboluzionatuz joan den eskola inklusiboaren eredura heldu arte garatzen da. Bestetik, aztergai honen inguruko proposamen didaktikorako erabili diren metodologia kooperatiboak azaldu eta ondoren ikas-irakaskuntza prozesuan aurrera eramandako teknika pedagogikoak garatuko dira.

Halaber, Practicum modulua teoria praktikara eramateko aukera eman dit; hau da, unibertsitatean ikasitakoa eskola-testuinguru erreal batean aplikatzeko aukera eman zait, nahiz eta gero azaltzen dudan moduan, COVID-19 pandemiaren konfinamenduarengatik ezin ikusi proposamenean atera behar ziren emaitzak. Izan ere, Erreniega Ikastetxe Publikoan izandako 3. eskola praktiken esperientziek hezkuntza-errealitateari eta ikasleen ezaugarri eta gaitasunei buruzko ezagutzak eman didate eta hauei esker, proposamen didaktikoa definitu ahal izan dut.

Azkenik, aukerako modulua bidea ematen digu interes gehiago ditugun irakasgaiak ikasteko. Nire kasuan Gorputz Hezkuntzako moduluko irakasgaietan ikasitako teknikak ez ditut lan honetan erabili, aldiz aurretik nituen ezagutza pedagogikoak praktikan jartzeko aukera izan dut.

Atal honi amaiera emateko, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerakoan hizkuntza koofizial bat ezagutzen duten ikasle elebidunek C1 maila ere izan behar dutela erkidegoaren beste hizkuntzan, alegia, gure kasuan, euskarari. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, “conclusiones y cuestiones abiertas” eta hurrengo ataletan aipatzen den laburpen derrigorrezkoa bi eletan idatziko dira.

Laburpena

Hezkuntzak ibilbide luzea igaro behar izan du hezkuntza inklusiboaren ideia heldu arte. Inklusioaren ideia atzean uzten ditu hezkuntza segregatuaren zein integratzailearen kontzeptuak eta eskoletan ikasleak modu inklusiboan ikastea bilatzen du. Lan honetan, eskola inklusiboek bete behar dituzten hainbat ezaugarri azaltzen dira, gero, inklusioa geletan aplikatu ahal izateko sei metodologia kooperatiboen ideiak aztertuz. Izan ere, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzan eta tailerretan lan egitearen eruedetan jarriko da arreta.

Atal praktikoan Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleei zuzendutako proposamen didaktiko bat eskaintzen da. Helburu nagusia, POI metodologiaren bitartez ikasle guztiak elkarrekin kooperatzea ikasketa inklusibo bat lortzeko da. Horretarako, proposamenaren oinarri gisa Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxeko testuingurua eta kurrikuluma hartu izan dira. Izan ere, hasieratik landu beharreko helburu didaktikoak eta eduki zehatzak finkatzen dira; ondoren, proiektuaren sekuentzializazioa eta bete beharreko erronka nagusia lortzeko.

Hitz gakoak: hezkuntza, inklusioa, eskola inklusiboa, metodologia kooperatiboak, POI, tailerrak.

Resumen

La educación ha tenido que transcurrir un largo recorrido hasta llegar a la idea de educación inclusiva. El termino inclusión deja atrás los conceptos de educación segregada e integradora y busca otro modelo de aprendizaje. A continuación, se exponen una serie de características a cumplir por las escuelas inclusivas y para ello se analizan seis metodologías cooperativas las cuales favorecen al aprendizaje inclusivo. Aun así, este trabajo pone especial atención en las metodologías ABP y el trabajo organizado por talleres.

Mediante la propuesta didáctica dirigida a los alumnos y alumnas de 3º de Primaria, se busca la cooperación de todos ellos/as a través de la metodología ABP para conseguir un aprendizaje inclusivo. El proyecto está basado en el contexto y el currículum del centro escolar Erreniega, fijando así los objetivos didácticos y contenidos a trabajar a lo largo de la propuesta. Esto permite estructurar el principal reto a cumplir y organizar la secuencialización de las actividades.

Palabras clave: educación, escuela inclusiva, metodologías cooperativas, ABP, talleres.

Abstract

Education has had to go a long way towards the idea of inclusive education. The term inclusion leaves behind the concepts of segregated and inclusive education and seeks another model of learning. Below, a series of characteristics to be fulfilled by inclusive schools are set out and, to achieve this, six cooperative methodologies are analysed which support inclusive learning. Even so, this assignment pays special attention to the learning based on projects and to work through workshops.

By the didactic proposal directed to the students of 3rd grade of Primary School, the cooperation of all the students is sought through the ABP methodology to achieve an inclusive learning. The project is based on the context and the curriculum of the Erreniega school, setting the didactic objectives and contents to work on throughout the proposal. This allows for structuring the main challenge to be met and organizing the sequencing of the activities.

Keywords: education, inclusive school, cooperative methodologies, learning based on projects, workshop.

AURKIBIDEA

SARRERA	1
INTRODUCCIÓN	2
JUSTIFIKAZIOA	3
1. INKLUSIOAREN IBILBIDE LUZEA	6
1.1. Segregaziotik hezkuntza berezira	7
1.2. Hezkuntza berezitik hezkuntza integratzailera	9
1.3. Hezkuntza integratzailetik hezkuntza inklusibora	12
2. HEZKUNTZA INKLUSIBOA	15
3. ESKOLA INKLUSIBOA	20
3.1. Ezaugarriak	20
3.1.1. <i>Hezkuntza emozionala</i>	22
3.1.2. <i>Gizartea eta familiak</i>	25
3.1.3. <i>Ikastetxea</i>	26
3.1.4. <i>Hezitzaileak</i>	28
3.1.5. <i>Ikasgela eta espazioaren antolaketa</i>	29
3.1.6. <i>Ebaluazioa</i>	32
3.2. Eskola inklusiboa lortzeko metodologiak	33
3.2.1. <i>Puzzle metodoa</i>	36
3.2.2. <i>Elkarrekiko irakaskuntza</i>	38
3.2.3. <i>Berdinen arteko tutoretza</i>	39
3.2.4. <i>Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza</i>	40
3.2.5. <i>Kasuen azterketan Oinarritutako Ikaskuntza</i>	41
3.3. POI (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskintza kooperatiboa)	43
4. KASU PRAKTIKOA : PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	47
4.1. Justifikazioa	47
4.2. Testuingurua	48
4.3. Denboralizazioa	50
4.4. Baliabide Didaktikoak	52
4.5. Helburuak	54
4.6. Edukiak	55
4.7. Oinarrizko gaitasunak eta hauen aplikazioa	59
4.8. Metodologia	61

4.9. Jardueren sekuentzializazioa	64
4.10. Ebaluazioa	80
CONCLUSIONES	87
ERREFERENTZIAK	90
ERANSKINAK	96
Eranskina 1 : Hezurak, giharrak eta giltzadurak lantzeko fitxak	96
Eranskina 2 : Hasierako fasean erabiliko diren jarduera fitxak izaki bizidunen gaia lan talde txikietan egiteko	98
Eranskina 3 : A tailerrean dastamena eta usaimena lantzeko erabiliko diren fitxak	106
Eranskina 4 : B tailerraren posterra egiteko hezurak	107
Eranskina 5 : Kahoot galdetegiaren galderak	108
Eranskina 6 : Ikasleen autoebaluazio fitxa. Lan taldeetan betetzeko	114

SARRERA

Argi dago, oraindik, eta batez ere gizartea, gure eskoletan inklusioa modu arrunt batez lantzen den alderdi bat bezala ikusteko, bide handia geratzen dela. Hori honela izanda, lan honen bidez inklusioaren ibilbide luzea aztertzen hasiko gara, segregazioa eta integrazioaren kontzeptuak atzean utziz eta hezkuntza inklusiboaren ideia azaltzera arte iritsiko da. Inklusioaren kontzeptua definitzean, eskola inklusiboek izan behar dituzten ezaugarriak aztertzea pasako gara eta honekin batera hainbat metodologia kooperatibo proposatuko dira inklusioa geletara hurbiltzeko. Ondoren, kasu praktikoaren proposamenaren bidez saiaturako gara hurbiltzen eskola inklusiboaren ideia, POI eta tailerren bidezko metodologia kooperatiboek esker. Lan egiteko modu kooperatibo honen bitartez, izaki bizidunen gaia landuko da plastika ikasgaiaren edukiekin konbinatuz. Hori esker, ikasleen arteko elkarlaguntzarekin denak inklusioan ikastea bilatzen da.

Era berean, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren proposamen didaktikoa aurrera eramango den ikastetxearen inguruko informazioa aztertuko da. Bertan proiektua aurrera eramateko erabili den metodologia, jarduerak eta jarraitutako prozedurak nolakoak izan diren azalduko direlarik. Jarraian, nahiz eta proiektuaren emaitzak ezin aztertu (eskola itxi eta bertan behera geratu zitzaidalako), lan osoaren ondorio orokorrak azalduak daude arestian aipatzen joango naizen autoreen hitzak kontuan hartuz. Hortaz, ikusiko da metodologia kooperatiboak eskola inklusiboaren ideia lortzen laguntzen duten edo ez, autore ezberdinek ateratako hipotesiei eta frogei erreparatuz. Bukatzeko, proposamenerako eskaintzen diren baliabideak aurkezten dira, betiere eskola inklusibo bat lortzeko diseinatuta daudela jakinda.

Eskola inklusiboa eta metodologia kooperatiboen gaia aukeratzearen arrazoiak anitzak izan dira. Alde batetik, inklusioaren gaia azken bolada honetan hedabide zein unibertsitatean bertan ere asko entzuten ari den gai bat izateaz gain, asko interesatzen zaidan gaia da. Graduan zehar hainbat alderdi jorratu izan ditugu ikasgai ezberdinetan, baina nire ustez oraindik kontzeptu asko airean geratzen zitzaizkidan eskola inklusiboaren ideia ulertzeko. Hori dela eta, gradu bukaerako

lan hau inklusioaren kontzeptuan eta aurrera eraman ahal izateko metodoen inguruan burutzea oso aukera aproposa iruditu zitzaidan nire jakintzak areagotzeko.

Bestetik, metodologia kooperatiboen proposamen pedagogikoak daude. Gai hau nahiko ezezaguna zen niretzat eta metodologia berritzaile hauen inguruan informazioa jasotzen joan nintzen heinean oso erakargarria suertatu zitzaidan etorkizunean edota 3. eskola praktiketean aurrera eramateko. Ondorioz, niretzat berriak izango ziren teknika asko ikasteko aukera ederra ikusi nuen eta proiektu honetan murgiltzea erabaki nuen.

INTRODUCCIÓN

A pesar de todos los avances y esfuerzos realizados en el ámbito educativo y social nos queda un largo camino por recorrer para poder percibir en nuestras escuelas la inclusión de una manera normal y natural. En este trabajo analizaremos el largo camino recorrido en el ámbito educativo repasando los modelos educativos de segregación e integración hasta llegar al actual modelo de educación, inclusiva. Después de analizar el concepto de inclusión pasaremos a estudiar las características de escuela inclusiva y diferentes metodologías cooperativas que contribuyen al logro de este modelo de escuela. Posteriormente, mediante el caso práctico la intención es acercarse a este modelo de escuela nuevo e innovador, gracias a la puesta en práctica de las metodologías cooperativas ABP (Aprendizaje Basado en Proyectos) y el trabajo organizado por talleres.

Las razones que me han llevado a elegir los temas de escuela inclusiva y metodologías cooperativas han sido varias. Por un lado, el tema de la inclusión aparte de ser un tema muy escuchado últimamente tanto en los medios de comunicación como en la universidad, es un tema que personalmente me llama mucho la atención. Durante el grado de educación primaria, en algunas asignaturas se han desarrollado aspectos diferentes, pero creo que todavía me quedaban muchos conocimientos que aprender y aclarar en torno a la idea de educación inclusiva. Por ese motivo, me pareció una buena oportunidad realizar

mi trabajo de fin de grado sobre el concepto de inclusión y las metodologías para poder llevarlo a cabo, estaba convencida de que aumentarían mis conocimientos sobre ello.

Por otro lado, me centraré en analizar varias de las metodologías cooperativas también. Sin embargo, este tema se me hacía más desconocido y a medida que fui recopilando información sobre estas metodologías más nuevas y modernas me pareció muy interesante el poder llevarlas a cabo en un futuro como maestra o incluso en mis prácticas de grado. Por ello, vi una oportunidad muy buena para aprender nuevas técnicas de enseñanza y aprendizaje y es por ello que decidí aplicar una de ellas en mi propuesta de trabajo. Para concretar, la metodología basada en proyectos que es una metodología cooperativa.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urte hauetan, Hezkuntza Sistemak eboluzio eta hobekuntza nabarmena jasan duela argi dago, oraindik lan asko falta den arren. Denborak aurrera egin ahala, hezkuntzan bezala, gizartean ere aurrerapauso izugarriak eman dira. Beraz, XXI. mendeko gizarteak eraldaketaren gizartea izan behar du, ezberdintasun sozialen kanporatzearen eta inklusioaren gizartea. Gaur egungo gizarteak ezin ditu gauzak dauden bezala utzi eta arazoei iskin egin. Lan horretan eskolak funtzio handia du egiteko, mundu juxtu eta anitza izan dezagun.

Egungo gizartean kultura ezberdinetako jende ugari topatu dezakegu eta beraz, populazioa askoz ere anitzagoa eta konplexuagoa da. Errealitate hau eskoletara hedatu da eta bertan ere jatorri ezberdinetako ikasleak aurkitzen dira, honek dakarren egokitzearekin (Garcia, 2008). Hori dela eta, hainbat dira inklusioa eta metodologia kooperatiboen gaia batera lantzea bultzatu dizkidaten arrazoiak. Hasteko arrazoi pertsonala, lan honetarako aukeratzen nuen metodologia praktikan jartzeko aukera ematen zidalako.

Hortaz, lan hau burutzeko gaiak atera zirenean lehendabiziko momentutik ideia ona iruditu zitzaidan eskola inklusiboaren gaia lantzea, gero ikastetxe batean proposamen didaktiko bat planteatzea gustatuko litzaidalako. Horregatik,

aurkezten dudan lan honetan, izaki bizidunen gaiaren bidez, metodologia kooperatibo bati esker haurrak eskola inklusibo batean ikastea bilatzen dut. Izan ere, hurrengo lerroetan inklusioaren gaia argitzera eta niri gehien motibatu ninduen metodologia kooperatiboa azaltzera pasako naiz.

Egia da inklusiorako bidea ez dela erraza eta horren sustapenak gaur egungo eskoletan erronka itzela dela hezkuntza sistemarentzat. Inklusioa, hezkuntza sistemaren jarduketa gidatu bat behar duen filosofia baino askoz gehiago da eta. Modu honetan definitzen dute inklusioaren ideia hezkuntza-inklusioarekin guztiz konprometituta dauden zenbait egilek (Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008): haur eta gazte guztiei hezkuntzara irits daitezen bermeak ematen dituen eskola da; edonola ere, kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaintzen du, denei aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea bermatzen diena.

Horregatik, inklusioa gaur egungo eskola globalizatu honen erronka bilakatu behar da. Ikasle guztien eskubideak bermatzeagatik ahalegin berezia egin beharra, dibertsitatea onartu, diskriminazioa gaitzetsi eta denak taldeko partaide sentiarazteko ahalegin berezia eginez (Rios, 2005). Horregatik, hilabete batzuk lehenago behar bereziko ikasle batekin lan egiteak eskolaren esparrua aztertzeraz eraman ninduen. Arrazoi horregatik, kezkarria iruditzen zait gaur egungo eskolak ikasle guztiekin inklusioa behar bezala ez lantzearen ondorioz, Hezkuntza Premia Berezidun (HPB) ikasleek egoera desatseginak bizi behar izatea. Dena den, praktikak egiten ari nituen Erreniega ikastetxeak oso kontuan hartzen ditu ikasle bakoitzaren beharrak eta nahiko eskola inklusiboa dela esan dezaket. Beraz, aukera paregabea nuen nire GBL-aren proposamen praktikoa bertan burutzeko.

Behin gaia aukeratuta eta hezkuntza sistemaren egoeran murgilduz gero, estrategia metodologikoen garrantzi handia hartzen dutela kalitatezko ikaskuntza eskaintzeko testuinguru normalizatuetan konturatu naiz. Hortaz, helburuak lortzeko planteatzen diren jarduerak eta estrategiak, edukiak bezain garrantzitsuak dira. Horregatik Fortearen (2019) arabera, metodologia didaktikoak modu estrategiko eta oinarri zientifiko baten bidez irakasteko formari esaten zaiela defendatzen du.

Metodologiaren eraginkortasuna justifikatzen duten autore ezberdinen hitzak eta hainbat metodologia kooperatibo aztertu ondoren, irakats metodoek berebiziko garrantzia dutela agerian geratzen da. Hausnarketa honi esker, irakasleek, ikasleek ikaskuntzan laguntzeko tresna hau erabiltzearen egokitasunaz jabetu naiz. Hortaz, Ordiziako Urdaneta ikastetxean (Amara Berri sistemaren barruan dagoena) lan egiteko estrategiak ezagutu ondoren, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia erakargarria ikustera eraman ninduen. Era berean, proiektuen bidez lan egitearen ideia ikastetxe horretatik atera nuen eta ondorioz nire proposamenean tailerren bidez proiektuak lan egingo gurela erabaki nuen.

POI metodologian gehiago sakondu nintzenean, batez ere, argi geratu zitzaidan irakasleek irakasteko jarrera tradizionala aldatu behar zela. Dena den, pertsona bakar batek, eta egun batetik bestera, ezin du hezkuntza sistema oso bat aldatu. Hala ere, aldaketa handiak ez badira ere, gure ikuspegia zabaldu, gure jarrera eredutzat erabili eta inklusioari etzi gabe ekin ahal diogu. Eduardo Galeanok esan zuen bezala, “Jende txiki askok, leku txiki askotan, gauza txiki eginez, mundua alda dezakete”.

Laburpen gisa, aniztasunari osotasunean erantzuten dion eskola bat lortzeko erabili dudana proposamen pedagogikoari esker ikasle guztiak inklusioan lan egin ahal izan dute. Tailerren banaketari esker, talde txikietan kontzeptu berriak praktikan jarri dituzte, betiere ikaskuntza lan kooperatiboa bultzatuz. Esandako azken honi erreferentzia eginez, nire Gradu Bukaerako Lanaren abiapuntua aurkezten dut.

1. INKLUSIOAREN IBILBIDE LUZEA

Gure aurreko gizarte generazioek eskola inklusiboaren eredura iristeko jarraitu duten prozesua luzea eta aztertzea izan da. Bide honetan, hainbat oztopo gainditu behar izan dira mundu guztiak hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikas dezan. Batez ere Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak izan dira urteetan zehar hezkuntzan baztertuak izan direnak. Inklusioaren kontrako kontzeptua eskusioa edo bazterketa da eta hurrengo puntua azaltzeko erabiltzen diren informazio iturri desberdinak aztertuz gero, urte batzuk atzera egitean konturatzen dira hezkuntza sisteman bazterketa edo segregazioa eman zela. Ibilbidearekin jarraitzeko, urteak igaro ahala hezkuntza sistema aldatzearekin batera, premia berezien beharra zuten pertsonen integrazioan ikastea proposatzen zieten. Hala ere eta nahiz eta integrazioan ikasi, ikasle hauekin eskoletan egiten zutena bazterketa izaten jarraitzen zuten.

Hortaz, gaur egun oraindik eskola inklusiboen alde borrokatzen ari dira. Hau da, ikasle guztientzako kalitatezko hezkuntza bidezkoa eta justua eraikitzen laguntzeko konpromisoa hartzea. Dena den, nahiz eta eskola gehienetan inklusioa bermatzearen alde egon oraindik oztopo asko geratzen dira gainditzeko eta prest egon behar gara inklusioa geletan ezartzeko. Horretarako, gero sakonago azalduko den bezala, Echeitak (2016) hezkuntza inklusiboa definitzeko erabiltzen dituen hiru dimentsioak betetzera iritsi behar gara: presentzia, parte hartzea eta ikaskuntza.

1.1. Segregaziotik hezkuntza berezira

Izan ere, Dussanek (2010) esaten duen bezala ezin da ahaztu XIX. mendera arte behar bereziak zituzten pertsonak gizarte eta hezkuntza sistemarengatik ahaztuak eta baztertuak zeudela. Beraz, 1970ean Hezkuntzaren Lege Orokorra martxan jarri eta gero aniztasunari eman zaion tratua aldatu zen. Hezkuntza premia berezien kontzeptuaren inguruan zegoen ikuskera asko aldatu zen eta hemendik aurrera pausu txikiak ematen joan ziren pertsona hauen integrazioa bultzatuz. Horretarako, Espainiaren legezko araudiari erreparatuz, hezkuntzan gaitasun eza duten pertsonen ikuspegi kontzeptuala eboluzionatu eta garai desberdinetan eraldatzen joan da. Hortaz garai batean guztizko eskusioa existitu izan zen; gero, hezkuntza berezira zuzendu zen; jarraian, hezkuntza integrazioaren kontzeptuak maneiatzen hasi ziren eta azkenik gaur egun, dibertsitatean oinarritutako hezkuntza inklusiboaren ideia zabaltzen hasi da.

a) Gaitasun eza duten pertsonen segregazioa

Dussanen (2010) ikerketaren arabera hasieran gaitasun eza zeukaten pertsonak bazterketa izugarria jasaten zuten eta hezkuntzarako eskubidea ez zuten. Ezin da garai edo urte konkretu batez hitz egin, baina antzinaroan ahalmen urriko jendea gaziki ikusiak, baztertuak eta familientzako zigor bat izatea bezala suposatzen zuen. Hori dela eta, pertsona hauek garatzeko eta integratzeko eskubiderik ez zutela uste zen.

b) Eskola bereziaren jaiotzea

Dussan-ek (2010) defendatzen du eskolak XVI. mendean irekitzen hasi zirela, baina XVIII. mendera arte ez da garatzen. 1828. Urtean, Frantzian, "ahalmen urritasuna" duten pertsonentzako eskolak irekitzen hasi ziren, Tirad-en (1775-1938) emaitzetan oinarrituta. Autore honek "gaitasun eza"-ko pertsonekin egindako lanen bidez, demostratu zuen kognitiboki ahulak ziren pertsona guzti horiek ere irakatsi eta hezitu ahal zirela.

Alde horretatik jarraituz, garai honetan l'Épée abadek pertsona gorra komunikatzeko zeinuen bidezko hizkuntza sortu zuen. Gainera, Alemanian, Samuel Henecke gorra hitzen bidez komunikatu ahal izateko metodologia garatu zuen. 1829an Louis Braille unibertsalki ezaguna den erliebezko puntuen bidezko idazkera (braille sistema) sortu zuen, itsuentzako irakurtzeko eta idazteko ukimen-metodoa hain zuzen ere.

Aurrekoan oinarrituta, esan daiteke eskola berezien inplementazioari esker frogatu zela pertsona hauek gai zirela muga fisikorik ez duten pertsonekin modu intelektualean lehiatzeko (Dussan, 2010).

c) Pedagogia terapeutikoa

Segregazioarekin jarraituz eta kasu honetan Cañedoren (2003) aburuz, "pedagogia terapeutikoaren" kontzeptua erabiltzen hasten da ikerketen emaitzekin gaitasun eza duten pertsonen klasifikazio bat egiten hasten denetik. Izan ere, ikuspegi berri honek proposatzen zituen neurri medikoak eta pedagogikoak, ezgaitasun fisikoren bat zuten pertsoneri esku-hartze esanguratsuago bat egiteko ez ziren hain sendoak.

Hortaz, Cañedoren ikerketaren arabera, XIX. mende bukaeran eta XX. mende hasieran gaitasun ezaren izatasuna eta ezaugarriak ulertzeko bi joera definitu ziren bata medikuengatik eta bestea irakasleengatik ezarrita. Irakasleek zioten ahalmen urritasuna agertu ahal dela faktore psikologiko eta pedagogikoengatik. Azken honek erreferentzia eginez gaitasun eza larriagotu edo gutxitzea aztertzen duten faktoreei.

d) Hezkuntza berezia

Dussan (2011) "Educación inclusiva: un modelo de diversidad humana" aldizkarian esaten duen bezala, 1917. urtetik aurrera European oinarrizko eskolatzearen derrigortasuna eta hedakuntza hasi zen. Bertan, ikaskuntza arazoak zituzten ikasle anitzak antzeman ziren. Taldeak gero eta homogeenak ziren, hortaz, ikasleak sailkatzeko beharra azpimarratzen zuten eta eskola arruntaren barnean gela bereziak eratzen ziren, hezkuntza bereziari lekua utziz.

Bestalde, Dussanek (2010) argitaratutako “Educación inclusiva: un modelo de educación para todos” artikuluan esaten du Estatu Espainolean Hezkuntza Bereziaren lehenengo ikastetxeak sortzearekin batera, Hezkuntza bereziaren sorkuntza aurrera pauso positiboa balitz bezala kontuan hartzen dela. Honi esker, gaitasun ezak dituzten pertsonen hezkuntza espezifiko eskaintzeaz arduratzen da. Gainera, irakasleriaren prestakuntza, ikaskuntza hobetzeko programa bereziak, material espezifiko eta eskola bereziak sorraraztea bultzatu zuen.

Bestetik, instituzioak sistema arruntak baztertzen zituen ikasleak jasotzen hasi zirenean, hezkuntza bereziaren sistema zalantzan jartzen hasi zen. Planteamendu berezile baten jatorria bezala ikusten hasi ziren. Bertan jarrera arazoak, gaitasun eza ezberdinak, gizartean egokitzeko arazoak izatea eta beste hainbat problema, eraman zuten ikasle guzti hauek zentro berezietan biltzera (Dussan, 2010).

Dussanek (2011) kritikatu duen moduan, prozesu hau aurrerakuntza minimo bat izan zen behar funtzionalak zituzten pertsonentzat, horregatik eraman zuen ikasleen segregazioa eta bazterketa areagotzera. Hortaz, honako hau izan zen “normalizazio” mugimendua sortzera bultzatu zuen arrazoi bat.

1.2. Hezkuntza berezitik hezkuntza integratzaile

Gaur egunera gerturatu heinean neurriak ere ugariagoak ziren. Horregatik XX. mendean sartzean aurrerapausoa handia izan zen, batez ere lege aldetik. Urte zehatz batetik hasteko, 1970an Hezkuntzaren Lege Orokorra, hezkuntza sistema orokorra eta berezia ezberdintzen ditu eta aurrerapauso garrantzitsua ematen da Hezkuntza Bereziarentzat. Dussanek (2011) esaten duen moduan, lege hau ez doa integrazioaren bidetik, berdintasuna defendatzen ez duelako eta ondorioz, eskola eta gela bereziak sustatzen ditu. Bere helburua aldiz, hezkuntza sistemaren koherentzia eta Hezkuntza Ministerioaren berregituraketa bermatzea da.

Cumellas (2010) eta Tierra eta Castillo-ren (2010) arabera, 1978ko Konstituzioan integrazioarako lehenengo pausoa ematen da “Plan Nacional de Educación Especial” delakoa. Lege honek irakaskuntzaren indibidualizazioa, eskolan “integrazioa” bermatzen zuen, ikasleen heterogeneotasuna aintzat hartuz. Gainera, ikasle goaren arteko desberdintasunak onartzen ditu eta ahalmen urritasuna duten pertsonen zailtasunak planteatzen ditu.

Cumellas-en (2010) ikerketaren arabera, 1980ko hamarkada aldaketa handia izan zen, batez ere aldaketa sozio-politiko nabarmena egon zelako, konstituzioaren sorkuntza tartean. Bertan, 49.artikuluari zailtasunak zituzten pertsonen prebentzio, tratamendu, errehabilitazio eta integrazio politikak aurrera eramango zela jartzen zuen.

Tierra eta Castillo-k (2010) argitaratutako artikuluan azaltzen duten bezala, 1990ean “Ley de Ordenación General del Sistema Educativo” (LOGSE) legea sortzen da, 1970eko Hezkuntza Lege Orokorra ordezkatzuz. Hezkuntza lege honek lehen aldiz eskola inklusiboren inguruan hitz egiten du eta integrazio hitza pixkanaka bazterrean uzten du. LOGSE Legeari esker Hezkuntza berezia eta hezkuntza behar berezien kontzeptuak ezartzen dira; hortaz, eskolatzeko modalitateak desberdintzen dira ere: ohikoa, berezia eta partekatua. Azkenik, jarduerak profesional berriak sortzen dira.

1995eko Dekretuak azpimarratzen du hezkuntza integratuago bat lortzeko, pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza helburu bezala duela. Azken finean, integrazioak Hezkuntza Premia Berezidun ikasle goan arreta jartzen du soilik (Echeita, 2016). Gainera, Toboso et al.- en (2013) arabera, 1995an “Ordenación de la educación de los alumnos con necesidades educativas especiales” delako dekretuak kalitatezko atentzioa eskaintzea bermatu nahi zuen.

Bestetik, dibertsitatearen ideia sartzen hasten da eta hezkuntza ikasle beharretara egokitu behar zela esaten zuen. Ikasle hau ohiko geletan egongo da beste ikasle guztiekin batera eta denek bezain aukera berdina edukiz (Darretxe et al., 2016; Lopez-Velez, 2018).

Toboso et al. (2013) defendatzen duten moduan, XXI. mendean sartuta, inklusioa geroz eta gehiago garatzen joan zen. Honela, 2006an Hezkuntza Lege Organikoaren (LOE) printzipioak hezkuntza inklusiboaren orokortzea erraztu zuen. Bertan ohikoak ez ziren eta garai hartan arazotzat kontsideratzen ez ziren arazoak zerrendatu zituen, hala nola, arazo pertsonal edo familiarak, goi mailako gaitasuna dutenak etab. Hortaz, ikasteko prozesuetan kontuan hartzen du ikasle guztiak desberdinak direla; hau da, jarrera, interes, motibazio, gaitasun, ikasteko estilo eta aurreko esperientziak desberdinak izatea.

Ikasteko eskubideari dagokionez, 2006ko Legeak hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleen artean desgaitasun fisikoa, psikikoa edo zentzumenezkoak (entzumena edo ikusmena) eragindakoarengatik edo portaera arazo larriak dituztelako dira. Bestalde, hezkuntza sisteman berandu sartu diren ikasleak edo/eta egoera soziokultural ahulean daudenak sartzen dira ere eta azkenik, adimen altuko ikasleria.

Laburbilduz, azkenaldi honetan integrazioaren terminoak eboluzio handia jasan du eta gero eta gehiago inklusioaren terminora hurbiltzen ari da. Izan ere, Dussanen (2011) hitzen arabera esan daiteke integrazioak ez zuela hezkuntza integratzailearen ohiko mezua bere osotasunean utzi. Bestetik Echeitak (2016) defendatzen duen moduan, nahiz eta hezkuntzaren arloan gizarte eta hezkuntzari eragiten dizkien aldaketa eta berrikuntza nabariak etengabe gertatu, momentu historikoaren arabera hezkuntza ere egokitu behar da ikasle guztietara moldatzeko. Integrazioak aldiz, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleengan soilik jartzen du arreta, aldiz, inklusioak (90.hamarkadan sortzen dela) edozein bereizketa motaren kontra egiten du.

1.3. Hezkuntza integratzailetik hezkuntza inklusibora

Herrera (2016) “La educación inclusiva, ¿Una escuela para todos?” lanean esaten duen moduan, azken urteetan integrazioak izan duen garapena aurrera pausu bat eman du eskola adikorrako batera. Gainera, inklusioaren kontzeptua eboluzionatzera bultzatu du mugimendu honek eta horregatik esaten da inklusioaren ideia 90. hamarkadan agertu zela lehen aldiz. Momentu honetan, ahalmen urriko edo gaitasun eza duten pertsonen eskubideak baloratzen zein aitortzen hasi ziren “Ez dira pertsonak normalizatzen, baizik eta ingurune eta giroa” Gavira (1992, p. 29).

Euskal Herriko Hezkuntza Berezirako Egitasmoan (1982) puntu hau azaltzeko abiapuntu hartuta, azken hamarkadetan, hezkuntza inklusiboa bultzatu egin behar dela adierazi da nazioarteko hainbat deklaraziotan, forotan, erakundetan eta egitasmotan. Haur guztiak eskolatu behar direla azpimarratu dute, eta batez ere, babesgabe edo baztertuta daudenak. Jarraian deklarazio, foro, programa eta gomendio nagusiei egingo zaie erreferentzia.

Egitasmoan azaltzen den bezala, 1990ean UNESCOk nazioarteko foro bat egin zuen Jomtien hirian (Tailandia). Bertan, hezkuntzaren arloko jarraibideak ezarri zituzten eta lehenengo aldiz inklusioaren ideia mahaigaineratu zuten. Gainera pertsona guztientzako hezkuntza baten aldeko konpromisoa hartu zuten; hau da, hezkuntzak oinarritzko ikaskuntza-premiak ase behar dituela adierazi zuten. Hezkuntza ikasleen beharretara egokitu behar dela diote. Gaitasun ezak dituzten ikasleak ere ohiko geletan egon behar dira beste ikasle guztiekin batera eta denek aukera berdinak edukiko dituzte (Lopez-Velez, 2018).

Lau urte geroago, Salamancako deklarazioak (1994) hezkuntza bereziaren norabidea aldatu zuen, zalantzarik gabe. Euskal Herriko HBEan (1982) esaten den bezala, deklarazio horretan azpimarratu zen ezinbestekoa dela haur, gazte eta heldu guztiak hezkuntza-sistema berean heztea, hezkuntza-premia bereziak izan edo ez. Inklusioa izan behar da guztiontzako hezkuntza eraikitzeko politikaren eta jardunaren gidari. Beraz, denentzako hezkuntza bermatzen da ikasleen presentzia, ikaskuntza eta parte hartzea mugatzen dituzten mota desberdinetako oztopoak kanporatuz. Helburu gisa, orientazio inklusiboa izango duten hezkuntza sistemak sustatzea ezartzen du (UNESCO, 1994).

Europar Batasuneko Itunaren 5. artikulua dioen moduan, Lisboako Itunak (2007) aldatutakoa: "Politika eta ekintzak zehaztu eta gauzatzeko lanetan, sexua, arraza edo jatorri etnikoa, erlijioa edo uste sendoak, ezgaitasuna, adina edo sexu-joera arrazoi dituen bereizkeria ororen kontra borrokatzen ahaleginduko da Batasuna". Pertsona guztientzako eskola berdintasunaren eta parekotasunaren printzipioa dela onartuz, kalteberagoak edota desgaitasun funtzionala duten horiei, eskoletan ere laguntza berezia eskaini beharko zaie (Euskal Herriko Hezkuntza Bereziaren Egitasmoa, 1982).

Educación y formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010 (Hezkuntza eta prestakuntza Europan: sistema anitzak, 2010erako helburu komunak) deritzon lan-egitasmoan, hainbat hezkuntza-helburu zehaztu ziren, eta horietako batzuek espresuki egiten diete erreferentzia desabantaila-egoeran dauden ikasleei, hau da, gizarte-maila apaleko ikasleei, premia bereziak dituztenei, eskola behar baino lehenago uzten dutenei eta ikasle helduei.


Bestalde, 1982ko Egitasmoa dio Europar Batasunak 2020rako ezarritako helburuetako bat dela eskola uzten dutenen ehuneko gutxitzea: "Ikasleen %10ek baino gutxiagok utzi behar lioke ikasteari behar baino lehenago, eta belaunaldi gazteenaren %40ak gutxienez, goi-mailako ikasketa osoak izan behar lituzke".

Inklusioaren aldeko politikak eta programak garatzeko Giza Eskubideen Aldarrikapenaren (1948) esparru zabala hartu egin da, normalizazio-printzipioan aldarrikatzen zen eskubide berezia atzean utziz. Hortaz, 1982ko Egitasmoan esaten da inklusioaren marko edo esparrua erreforma integratzaileek ezarritakoa baino zabalagoa izan beharko lukeela.

Etikak agintzen du parekotasuna eta gizarte-justizia izan behar direla hezkuntzaren oinarri. Konpromiso honek etikak agintzen duenarekin bat egiten duenez eta herritar guztiak kontuan hartzeko, hezkuntza arloko eta gizarteko bestelako eragileei (besteen artean) erabakiak aldatzeko eskatu behar zaie (Euskal Herriko Hezkuntza Bereziaren Egitasmoa, 1982).

Inklusioaren kontzeptua laburbiltzeko, hainbat autorek horrela definitzen dute: UNESCO (2009) "Inklusioa ez da teknika, ezta metodo bat ere, gizartea ulertzeko modu bat da, guztiek gizartean berdintasunean aritzeko eskubidea da" definizioan oinarritzen da. Bestetik, Ainscow (2003) azpimarratzen du inklusioa prozesu bat dela; hau da, kontzeptua hartu behar da aurkikuntza bukaezin bat bezala dibertsitateari erantzuteko era egokien bila dabilena. Ezberdintasunarekin bizitzen jakitea eta ezberdintasunaz ikasten ikastea izango da gakoa. Hortaz, inklusioa oztopoen ezagutzan eta kanporaketan zentratzen da; ikasle guztien asistentzia, parte-hartzea zein ekoizpena suposatuz (Ainscow, 2003). Bukatzeko Arnaizen (1996) hitzak jarraituz, inklusioak arreta berezia jartzen du baztertuak edo kanporatuak izango diren ikasle talde horietan.

Azken finean "integrazio ereduan behar bereziko haurrak denbora gehiegi pasatzen zuten ikasgelatik kanpo laguntza berezia jasotzeko. Aldiz, eskola inklusiboetan haurrak ez dira gelatik atzeratzen laguntza hori izateko, eredu honetan, laguntza osagarria gelaren barruan jasotzen dute; hortaz, laguntza irakasleak eta baliabide materialak koordinazio lan garrantzitsu bat egin behar dute tutorearekin bat eginez". Horregatik, orain arte landu diren kontzeptuak (bazterketa, segregazioa, integrazioa eta inklusioa) biltzen dituen ideiak Bravok (2015) proposatutako irudiarekin errealitatea irudikatzen du:



Irudia 1. Integrazioa vs inklusioa eta bazterketa/segregazioa (Bravo, 2015)

2. HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Hezkuntza inklusiboaren ideia, nagusiki, UNESCOk garatutako lanetik dator eta honek esaten du hezkuntza iritsi behar dela eskola garaian dauden haur guztiei. UNESCOk babesturiko hezkuntza mugimenduari dagokio eta Guztiontzako Eskola mugimenduaren buru da mundu-mailan. Horregatik, haur eta gazte guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzea da inklusioaren ikuspegia edo erronka. Horrek esan nahi du ikasle guztiak onartuak izan behar direla, eta guztiek ere eskolan parte hartuko dutela, bakoitzak dituen ezaugarri edo gaitasunak kontuan hartuz. Beraz, aniztasuna ez da ikusten gainditu beharreko arazo gisa, guztien ikasketari laguntzeko baliabide aberasgarri bat baizik (Echeita, 2016).

“Hezkuntza inklusiboa, aztertzen du nola integratu daitezke ikasle zehatz batzuk ohiko hezkuntzara. Ideia honen ikuspegia beharrezkoa da hezkuntza sistemen eta ikaskuntzaren beste hainbat eremuen eraldaketa aztertzeko eta modu honetan, ikasleen aniztasunari erantzungo zaio. Hezkuntza inklusiboaren helburua irakasle eta ikasleei aniztasunaren aurrean eroso sentitzen uztea da eta arazo bat balitz bezala ikusi ordez, irakasteko eta ikasteko erronkak aberasteko pertzibitzea da ideia” (UNESCO, 2005).

UNESCO-k mundu-mailan sustatzen duen hezkuntza inklusiboaren korrontearekin bat eginez, munduko komunitateak 2015erako bete nahi du guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa eskaintzeko konpromisoa. Beraz, inklusioa kalitatearen adierazlea edo faktorea den aldetik, ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko eskubideren bermatzea dakar (Echeita, 2016).

Bestalde, hezkuntza inklusiboa, guztiontzako hezkuntza bezala ulertzen du Arnaiz 2004ean argitaratutako “La educación inclusiva: dilemas y desafíos” aldizkarian. Inklusioa ulertzeko modu honen bidez zaintzen da behar bereziak, talde etniko, talde linguistiko gutxituetan, etab.-eko multzokatzeetan aurkitzen den edonor baztertua ez izatera; azken finean, arrisku egoeretan aurkitzen diren ikasle guztiak kontuan hartuz. Inklusioa parte-hartze bezala “La inclusión como participación” atalak planteatzen du inklusioa gizartea proiektatzeko modu bat bezala. Modu honetan, pluralismoa ulertzen da partekatze eta kide izateko sentimendu gisa eta berdintasuna inklusiora eramaten du.

Bestetik Ainscow eta Echeita (2011) aipatzen dute 1994ean Salamankako Deklarazioan hezkuntza inklusiboaren aitortzea gertatzen dela, hain garrantzitsua izan dena azken 17 urteetan hezkuntza inklusiboa printzipio gisa ikusteko. Autore hauek “La Educación como derecho” dokumentuan defendatzen duten bezala, moralki irizpide orientatzaile garrantzitsu bat bezalakoa da. Momentu honetan eta Arnaizen (2004) hitzetara bueltatuz, aldarrikatzen da hezkuntza sistemak diseinatu behar dituztela ikasleen ezaugarri eta beharren aniztasunari erantzuteko programak. Esfortzu berezia eginez baztertuak eta kaltetuak dauden haurren kasuetan.

Arnaizen (2004) esanetan, edozein eskola, eskola inklusibo batera eraldatzeko ikaslearen beharrekin bat datorren hezkuntza erantzun bat ematea eskatzen du. Horrek esan nahi du, ikasleen parte hartzea sustatzen duten proposamen didaktikoak garatu behar direla. Ondorio hauekin jarraituz, hezkuntza inklusiboak, hezkuntza eskubidea onartzen ez duen edozein bazterketa motaren aurka doa (Stainback y Stainback, 1999; Vlachou, 1999; Arnaiz, 2000).

Horregatik hezkuntza inklusiboaren asmoa ikasleek eta irakasleek dibertsitatearen aurrean eroso sentitzea da (UNESCO, 2005). Era berean, Echeitak (2016) azpimarratzen du hezkuntza eredu honen beste helburuetako

bat dibertsitate hori hezkuntza aberasteko alderdi bat bezala ikustea izan behar dela, ikasle dibertsitatea arazo bat bezala hautematen ez den bitartean. Hezkuntza inklusiboa gizaki guztiek duten eskubide bat bezala definitzen da, modu horretan, diskriminazio egoerak baztertzen dira.

López-Vélezek (2018) aldarrikatzen duen moduan hezkuntza inklusiboaren helmuga ikasle guztien garapen mailarik altuena bilatzea eta aurkitzea da, bakoitzaren ezaugarri indibidualak alde batera uzten diren bitartean. Beraz, ekitateak ez du soilik ikaslea eta bere ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen, bizitokia edo bere ikaskuntza garatzen duen ikastetxearen ezaugarriak ere kontuan hartzen ditu.

Dena den Echeitaren (2016) hitzei erreparatuz, urritasunak dituzten pertsonen eskubideen alde borrokatzen duen komiteak, hezkuntza inklusiboa garatzerakoan, ezaugarri hauek kontuan hartuta ulertu beharko dela aldarrikatzen du:

- Desgaitasuna duten eta ez duten pertsonen eskubideen berdintasuna.
- Hezkuntza duin bat eskuratzeko eta beste hainbat eskubideren alde egiteko baliabidea izatea.
- Hezkuntza osatzen duen langile guztien elkarlana eta konpromisoa hezkuntzarako eskubideak mugatzen duten barrera guztiak elimintzeko.

Gainera, Echeitak (2016) Educación Inclusiva: De los sueños a la práctica del aula dokumentuan azaltzen duen moduan, inklusioa gizartea ulertzeko modu berri baten parte denez, hezkuntza inklusiboa ez da bakarrik hezkuntza arloan gelditu behar, baizik eta, komunitate osora zabaldu beharko litzateke. Bide horretatik, aldaketa eta hobekuntza ugari ezartzea beharrezkoa izango da ikasle guztietara hezkuntza moldatu ahal izateko. Modu honetan, diskriminazio egoerak baztertuz hezkuntza inklusiboa ikasle guztiek duten eskubide bat bezala definitzen da.

Hezkuntza inklusiboa definitzen laguntzen duten printzipioak eta gure ebaluazioak finkatzerako orduan Echeitak (2016) erabiltzen dituen 3 dimentsioak hurrengo hauek dira: presentzia, parte-hartzea eta ikaskuntza. Dimentsio hauetan aldaketak modu komun batean eman beharko dira lortutako emaitzak

egokiak izateko. Era berean, garrantzitsuena praktikak ikasle guztien presentzia, ikaskuntza eta parte hartzea bermatzen dutela baieztatzea izango da.

Bestalde, ebaluaketak finkatzeko erabiltzen diren hiru urrats hauek Boothek eta Ainscowek (2015) sortutako “Guía para la educación inclusiva” gidan jarraitzen diren berdinak dira. Gida honen arabera, inklusioaren testuinguruan, presentzia ikasleak eskolatu diren ikastetxeari egiten zaio erreferentzia; batez ere, urritasuna duten ikasleen presentzia ikasgeletan. Lekuak garrantzitsuak izan behar dira eta baimendu behar dute gainontzeko ikaslegoaren hezkuntza baldintza berdinetan onartuak izatea. Beraz, ikaskuntza jasotzen duten lekuan, ikasle guztiei aukera eta behar dituzten baliabideak eskaini behar zaizkie ikasle guztiei hezkuntza justu eta etiko bat jaso ahal izateko.

Parte hartzearen aldetik, ikasgai ezberdinetako saioetan ikasle horiek besteekin batera ikastea eta kolaboratzea barnebiltzen du. Partaidetza aktiboa eta elkarrekintza ikasgelako eta ikastetxeko ikasketa esperientzietan. Hortaz, lotura estua dauka eskolan izandako esperientzien kalitatearekin. Gainera, ikasle bakoitzaren nortasuna ezagutu eta balioetsi beharko da, baita bakoitzaren ongizate pertsonal (autoestimua, adibidez) eta sozialarengatik (laguntasuna, adiskidetasun harremanak, etab.) arduratuko da ere. Dimentsio honek beste kideetaz ikastea eta klaseetan zehar elkarrekin lan egitea inplikatzeko du; azkenean, ikasten eta irakasten ari denarekin inplikazio aktibo bat izatea suposatzen duelako. Parte hartzeak ere, pertsona bakoitza den bezalakoa errespetatua eta ulertua izatea kontuan edukitzen du; “Yo participo contigo cuando tú me reconoces como una persona semejante a ti y me aceptas por quien soy yo” (Booth, 2006, p.25).

Hirugarrenik, ikaskuntzaren dimentsioak ikastetxeko ikasle guztiek Curriculumeko alderdi ezberdinetan, errendimendu egokia edukitzea kontuan hartzen du; hau da, ikasle guztien arrakasta akademikoan jartzen da arreta. Testuinguru honetan, arrakastaren ideia nabarmenagoa eta zabalagoa da, froga estandarizatuetan emaitza onak ateratzea baino. Emaitza akademiko, gogobetetze eta ongizate gisa ulertutako emaitzak dira.

Echeitak (2016) defendatzen duen moduan, 3 dimentsio hauei esker lortu nahi diren emaitza egokiak izateko, alor hauetan egin behar diren aldaketak

koordinatuki eta modu komun batean eman behar dira. Era berean, garrantzitsuena klaseko praktikak ikasle guztien presentzia, ikaskuntza eta parte hartzea bermatzen dutela baieztatzea izango da.

Beste alde batetik, hezkuntza inklusiboa bultzada nabarmena izan du, Hezkuntza Inklusiboa Ebaluatzen eta Hobetzeko Gidak (Booth eta Ainscow, 2002) aipatzen duen bezala Indexaren ideia azaltzean. Indexak Ingalaterrako ikastetxeetan aurrera eramandako esperientzia jasotzen du, eta horrela definitzen dute: "...eskola inklusiboetarantz aurreratzeko prozesuan, ikastetxeei laguntzeko diseinatutako material multzoa da, eta bertan, kontuan hartzen dira irakasleen, eskola-kontseiluaren, ikasleen, familien eta komunitateko beste kide batzuen ikuspuntua" (Booth eta Ainscow, 2002). 2000. urtean argitaratu zen lehenengo aldiz, eta lanerako gida gisa erabiltzen ari da mundu osoko hainbat ikastetxetan.

Index for Inclusion lan ospetsuari esker Booth eta Ainscow (2000) autoreek behin eta berriro gogorarazten dute hurrengo esaldia: "benetan garrantzitsua dena ebaluatzen hasi behar dugu, ezin diogu ebaluatzen dugunari soilik garrantzia eman". Alde horretatik, hezkuntza inklusioarekin lotutako kulturak eta ikastetxeetako hezkuntza-politikak nahiz -jardunak aztertu behar direla esaten du. Indexak, betiere, inklusioa modu zabalean ulertu behar dugularik; hau da, ikasle guztiak eskolan egon, ikasi eta parte hartu ahal izatea da inklusioa.

Hezkuntza inklusiboaren kontzeptua laburbiltzeko Echeitak (2016) idatzitako dokumentuan ondorioztatzen da, ikasle guztiontzako kalitatezko hezkuntza bidezkoa eta justua eraikitzen laguntzeko konpromisoa eta jarrera dakarrela hezkuntza inklusiboak. Prozesu jarraitu bat denez inklusioa, ibilbide horren bidez, haur eta gazte guztiek, bazterkeriarik gabe, eskolara joan ahal izatea, eta eskolan parte hartzea eta arrakasta izatea lortu nahi da. Ondorioz, arrakasta zenbatekoa den jakiteko emaitzak aztertu behar dira. Bukatzeko, inklusioa gizartea ulertzeko modu berri baten parte den aldetik, hezkuntza inklusiboa ez da bakarrik hezkuntza arloan gelditu behar, baizik eta, komunitate osora zabaltzeko behar litzateke. Gainera, Blanco (2010) azpimarratzen du hezkuntza inklusiboaren azken helburua gizarte bazterketa ezabatzea dela. Horregatik, hezkuntza oinarritzko giza eskubidearen ideia eta gizarte justuago baten oinarria izan behar dira sineskeria honen abiapuntu.

3. ESKOLA INKLUSIBOA

Eskola inklusiboa definitzeko, hezkuntza inklusiboaren aldeko zenbait egileren definizioa aztertuko dira, hain zuzen ere, Ainscow, Booth eta Dysonena (2006) eta Echeita eta Dukena (2008): "Haur eta gazte guztiek hezkuntza jasoko dutela bermatzen du eskola inklusiboak; ez ordea, edozein hezkuntza, kalitatezko hezkuntza baizik, guztiei aukera berak emango dizkiena".

Gainera, Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008, Eusko Jurlaritzan (2014) dioten moduan: "haur eta gazte guztiak hezkuntzara iritsi daitezten bermeak ematen dituen da eskola inklusiboa; baina, edonola ere, ahotan darabilgun hezkuntza hori ez da edonolako kalitatezko hezkuntza-sistema bat baizik, denei aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea bermatzen diena" (or. 43).

Lopez-Velez (2018) eskola inklusiboa laburtzen duen moduan, kalitatezko hezkuntza lortzea du helburu eta horretarako, ekitatea eta bikaintasuna ezinbesteko baldintzak bihurtzen dira. Hezkuntza bikaintasunaren aldetik, ikasle bakoitzaren garapen maila altua lortzeko diseinatuta dago, eskubide eta betebeharrak osoak dituzten herritarrek parte har dezaten. Horretarako, ikasle guztiek hezkuntzan sartzeko eta horrekin jarraitzeko aukera izango dutela bermatu behar da, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini, aukera-berdintasunean oinarritutakoa.

3.1. Ezaugarriak

López-Velezen (2018) hitzetan, eskola inklusiboak gaur egungo geletan aurkitzen duen aniztasuna errespetatzen du, bertan, bizitzen den ezberdintasun hori guztien ikasketari laguntzeko baliabide aberasgarri gisa erabiliz. Hortaz, eskola inklusiboa deskribatzeko alderdi asko izan behar dira kontuan, ezin dugu alderdi baten bidez soilik laburbildu.

Autore berdinak hezkuntza inklusiboa ulertzeko duen ikuspegiaren arabera, eskola inklusiboaren helmuga ikasle guztien garapen mailarik altuena bilatzea eta aurkitzea da, bakoitzaren ezaugarri indibidualak alde batera uzten diren bitartean. Beraz, ekitate honek ez du soilik ikaslea eta bere ezaugarri pertsonalak kontuan hartzen, bizitokia edo bere ikaskuntza garatzen duen ikastetxearen ezaugarriak ere kontuan hartzen dira. Horregatik, eskola inklusiboaren asmoetako bat kalitatezko hezkuntza lortzea da. Honekin batera, kalitate hori lortzeko bikaintasuna eta ekitatea ezinbesteko baldintzak bihurtzen dira (López-Vélez, 2018).

Izan ere (Darretxeren (2016) esanetan, eskola inklusiboa sare bat da, guztiontzako eskola bati eusten diona. Zenbat eta alderdi gehiagotatik aldi berean lan egin helburu berak lortzeko, hainbat eta sendoagoa izango da eskola inklusiboa. Askotan ordea, bestelako oztopoak sortzen dira inklusio prozesua aurrera eramatean; hala nola, arazo ekonomikoak. Gainera, ikastetxe askok ez dute errekurtsio nahikorik dibertsitatea aintzat hartzeko eta honen barruan aurkitzen dira azpiegiturak, errekurtsio materialak zein pertsonalak ere eta horrek inklusioaren prozesua zailtzen du.

Esan bezala, gaur egungo eskolak ikasle guztien beharrak asetzeko esku hartze desberdinak burutzeko prest egon beharko dira (Escribano eta Martínez, 2013). Horregatik, hurrengo azpi-puntuetan ikastetxeetan inklusioa bermatzeko kontuan hartu behar diren alderdi ezberdin hauek azalduko dira: hezkuntza emozionala, gizartea eta familiak, ikastetxea, hezitzaileak, ikasgela eta espazioaren antolamendua eta ebaluazioa.

3.1.1. Hezkuntza emozionala

Codina (1998) "Cuando las emociones son determinantes. Aula de Innovación Educativa" aldizkarian defendatzen duen bezala, urteetan hezkuntzan ez da kontuan hartu ikasleen alderdi emozionala. Mendebaldeko kulturaren eskoletako ikaskuntza, inteligentzia kognitiboaren garapenarekin erlazionatua izan da eta ondorioz, pertsonaren alde garrantzitsu bati ez zaio arretarik jarri. Beraz, autore honen arabera eskolan desoreka bat eman da ikasleen alderdi ezberdinen garapenean, alderdi sozial eta afektiboari arretarik eskaini gabe.

Hala ere, Codinak (1998) hezkuntza emozionala eskolan garatzea garrantzitsua dela azpimarratzen du, hezkuntzak ikasle guztien garapen integrala sustatu behar duela ulertuta. Horregatik azken urteetan garatu diren emozioen inguruko teoria ezberdinek eta hezkuntza ulertzeko ikuspuntu eraldaketak, tradizionalki eta gaur egungo hezkuntza sisteman nola eragin duen aztertuko da hurrengo lerroetan.

Aipatutakoaren ideia indartzeatik eta Bisquerra (2009) "Psicopedagogía de las emociones" artikuluan argi uzten duen bezala, hezkuntza arloan inoiz ez da ohiturazkoa izan emozioen psikopedagogiari behar duen atentzioa eskaintzea. Beraz, urte horietan zehar emozioek izan duten pisua eskusiboa edo baztertzaila izan da, familia kideekin haserretzea, amorrua izatea, etsaitasuna, gorrotoarekin etab. jarrerekin erlazionatzen zelako. Horregatik, gau egun XXI. mendean gaudelarik, afektua hezi beharra dago; hau da, emozioen inguruko ezagutza teoriko zein praktikoak irakastea. Modu honetan, pertsonen arteko topaketa emozionalak ongi gestionatzen jakingo da.

Bestalde, Bisquerrak (2010) "La educación emocional en la práctica" dokumentuan ikaslegoari erreparatzen dio defendatuz ikasleriak garapen sozial, emozionala eta akademikoa izateko duen eskubidea errespetatu behar zaiola, emozionalki ere bere garapena sustatuz. Beraz, pertsona bakoitzaren testuingurua kontuan hartuta, estrategia ezberdinak eraman behar dira aurrera hezkuntza emozionalaren praktika bermatzeko. Autore honen esanetan, hezkuntza emozionala sustatzean, aipatutako ikaslearen garapen oso horretan kompetentzia emozionalak garatzea oinarritzkoa izango da.

Horregatik, hurrengo hauek dira ikasleak garatu beharreko konpetentzia emozionalak eta hauen eskurapena etengabeko praktikaren bitartez gauzatuko da (Bisquerra, 2010):

- 1) Kontzientzia emozionala: bakoitzaren emozioez kontziente izatea eta hauei izena ematea zein besteen emozioak ulertzea.
- 2) Erregulazio emozionala: emozioen, pentsamenduen zein ekintzen arteko elkarrekintza, adierazpen emozionala, emozio ezberdinak kudeatzea, emozio positiboak sustatzea eta emozio negatiboak aurre egitea.
- 3) Autonomia pertsonala: autoestimua, motibazioa, erantzukizuna, kritikotasuna, eraginkortasun emozionala, errekurso eta laguntza bilatzeko autogestioa.
- 4) Inteligentzia interpertsonala: oinarrizko trebetasun sozialak menperatzea, errespetua, emozioen adierazpena, emozioak elkarbanatzea, entzute aktiboa, kooperazioa, asertibitatea.
- 5) Bizitzarako trebetasunak eta ongizatea: arazoaren identifikazioa eta ebazpena, helburuak finkatzea, negoziazioa eta ongizate subjektiboa. Konpetentzia emozionalak lantzeak eskolako kalifikazioak hobetu egiten ditu, errendimendu akademiko eraginkorragoaren ondorioz.

Konpetentziekin jarraituz, Bisquerra (2010) azpimarratzen du hauek eskuratzeko hezkuntza prozesu jarraia eta iraunkorra izan behar dela. Hortaz, ikasketa curriculumean eta formakuntzan agerian egon behar da bizitza osoan zehar. Egunerokotasuna eraldatzeko bidean emozioei arreta ematen dien praktika azaleratuz eraldaketarako keinu txikia egingo da. Modu honetan, hezkuntzak garapen kognitiboa sustatzeaz gain, garapen integrala sustatzeko bidean emozionalki ere heziko ditu bere ikasleak.

Bide honetatik, eskolek konpetentzia emozionalak ere landu beharko dituzte. Gainera, hezkuntza emozionala lantzearen prozesua eskola inklusiboarekin lotura estua duela esan daiteke. Gaur egungo hezkuntza ereduak ikastetxeetan bilatzen da, irakaskuntza prozesuan irakasleek duten babesa edo eman behar duten laguntza emozionala funtsezkoa izatea (Bisquerra, 2010). Horregatik, eta batez ere, inklusioa babesten duen eskola eremu batean, garrantzi handia du ikasle bakoitzaren garapen emozionalaren berri izatea.

Betiere, "La educación emocional en la práctica" (2010) artikuluan Bisquerrak esaten duen moduan, ikasleriak garapen sozial, emozionala eta akademikoa izateko duen eskubidea errespetatu behar zaio, emozionalki ere bere garapena sustatuz. Orduan, gizakiaren garapen pertsonal zein sozial optimoena lortuz gero, gizabanakoaren pertsonalitate integralaren garapena lortuko da ere. Gainera, hezkuntza emozionala norberaren emozio propioen ezagutza bat proposatzen du, bakoitzaren ezagutzan sakonduz. Hortaz, emozio propioen erregulazio bati esker norberarekin eta beste pertsonekin hobeto erlazionatzeak ahalbidetuko du, ongizate pertsonal eta sozialean lagunduz (Bisquerra, 2012).

Bisquerraren (2010) ideiak laburbilduz, hezkuntza emozionalak norbanako bakoitzaren ongizate pertsonala eta soziala sustatzen du, azaldutako bost konpetentzia emozionalen bitartez egunerokotasuneko egoerei aurre eginez. Bukatzeko, "hezkuntza emozionala, hezkuntza formalak asetzen ez dituen beharrian sozialak asetzeaz arduratzen da, bizitza osoan zehar garatuz".

3.1.2. *Gizartea eta familiak*

Puntu honetan gizartea eta familien arteko loturaren ezaugarriak garatzen dira. Horretarako, "Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa" (2012) aldizkarian esaten da eskoletan guztizko inklusioa lortzeko, hezkuntza komunitatearen barne dauden heldu zein pertsona guztiek irtenbideak bilatu behar dituztela. Beraz, funtsezkoa da irakasle guztien, gainerako langileen eta familien inplikazioa lortzea; hau da, beren gain hartu behar dute hezkuntza inklusibo bat lortzeko erantzukizuna, eta aniztasunari hezkuntza-erantzuna emateko ikuspegi berri horren protagonista etiko direla sentitu behar dute. Ondoren, haien arteko koordinazioa eta lankidetzak gauzatzeko egiturak sortu beharko dituztela azpimarratzen du.

2012an Eusko Jaularitzak hasieran aipatutako dokumentuan esaten duenaren arabera, ikastetxeetako irakasleek, ikasleek, familiek eta/edo legezko ordezkariak eta eragile sozialek komunitate-sentimendua bizi eta landu behar dute guztien artean. Horretarako, hezkuntza-komunitateko kide guztiei harrera eman behar zaie, eta kide guztien (irakasleak, ikasleak, familiak...) parte-hartzea sustatu behar da.

Bestetik, familiak etengabe daude umeen bizitzan eta, ondorioz, oso pieza garrantzitsua dira hezkuntzan. Familiekin izan beharreko lankidetzak, informazioa osatzen eta baloratzen eta itxaropenak egokitzen eta helburu komunak lortzen lagundu behar duten kalitatezko elkarrekintzak bilatu behar direla esaten da. Horretarako, eskola gehienetan familiak bertan parte hartzeko zenbait espazio diseinatuta ditu, adibidez, guraso elkarteak, eskola kontseilua, delegatuak, guraso eskola, hainbat programa berezi (jaiak), etab.

Gainera, familiek irakaslearekin egin behar duten elkarlana funtsezkoa izan behar dela nabarmentzen da Eusko Jaularitzak (2012) ateratako artikuluan; adibidez, irakasleek haurra hobeto ezagutzeko familiaren ikuspuntua behar dute (baita familia irakaslearena ere). Gainera, irakaslearen behaketen arabera ikaslearen ikaskuntza prozesuan oztopo batzuk egon daitezke eta hauei etxean aurre egitea lagungarria izan daiteke (batzuetan ezinbestekoa), eta familiak serio hartzea eta bere ahalegina egitea oso garrantzitsua dela azpimarratzen da. Laburtuz, irakasle eta familiaren arteko elkarlanak ikasleari aurrera egiten laguntzen diola defendatzen du Eusko Jaularitzak (2012).

Bukatzeko, dokumentu berean nabarmenztzen da ere eskola inklusiboan garrantzitsua dela lankidetzarako sareak sustatzea kanpoko beste profesional eta eragile batzuekin: administrazioa, berritzeguneak, unibertsitateak, beste ikastetxe batzuk, museoak, elkarteak, osasun zentroak,... Horien konplizitatearekin eta konpromisoarekin hezkuntza hobetzea bilatzen da, modu horretan gizarte inklusiboaren eraikuntzan aurrera eginez ere. Azken finean, hezkuntza komunitateak partaidetza eta konpromisoa izango dituen proiektu kolektiboa egiten ahalegintzen eta helburuak lortzeko beste eskola eta erakunde batzuekin harremanak ezarri beharko ditu (Marchesi eta Martin, 2014).

3.1.3. Ikastetxea

Atal honi sarrera emateko, Eusko Jaularitzak (2012) argitaratutako artikuluan esaten dena kontuan hartzen da. Hortaz, honetan defendatzen da ikastetxeak direla aldaketaren eragile eta horregatik bertan eman behar direla aurrerapauso handienak. Horretarako, ikastetxeetan bilatu behar dira ikasle guztiak hezkuntza-prozesura ekartzeko bitartekoak, modu honetan ikasleek ikastetxearen parte direla sentituz. Ikastetxeek komunitate bat izan behar dute; hau da, antolatutako testuinguru bat, ikasleei harrera egin eta hainbat motatako esperientzia aberasgarriak biziaraiziko dizkiena. Ikasle bakoitza den bezala onartu eta tratatu behar da, eta, jakina, ikasle guztiek zuzenean hartu behar dute parte komunitate horretan.

Ikasleen aniztasuna aintzat hartzeko hezkuntza-egitasmo bat izan behar duela aldarrikatzen da “Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa” dokumentuan. Ikastetxeko kulturak, politikak eta jardunak kontuan hartu beharko ditu eta ikastetxeek eta bertako komunitateek elkarri lagundu behar diote. Modu honetan, “ikastetxearen esku hartzeak prest egon beharko du bertan dauden ikasle guztien beharrei modu egokian aurre egitera” (Escribano eta Martinez, 2013).

Euskal Jaularitzaren (2012) arabera eskola-arrakastaren oinarria, denon artean eraiki behar dugun eskola-komunitateak abegikorra, laguntzailea eta bizigarria izan behar da, eta ikasleen gaitasun eta ahalmen guztiak balioetsi behar ditu. Gainera, azpimarratzen dute oztopoak gainditzeko konpromisoa guztiok hartu behar dugula, ikasle guztiek hezkuntza jaso, eskolan parte hartu eta ikasi ahal dezaten, eta ahaleginak egin behar ditugula ikastetxeek ikasleen aniztasunari erantzuteko dituzten oztopoak gaindi daitezten.

Eusko Jaularitzak (2012) defendatzen du zuzendaritza-taldeak bere gain hartu eta bideratu behar duela ikastetxeak ikasle guztien ikaskuntzarekiko duen konpromisoa. Ikastetxeetan inklusioari traba egiten dioten oztopoak desagerrarazteko, aipatutako artikuluan esaten den bezala, ezinbestekoa da zuzendaritza-taldeak inklusioaren alde agertzea ezbairik gabe, eta lidergo-lana gauzatzea. Gainera, berrikuntza-kultura sendotu behar dela esaten da, hau da, aldatzeko gaitasuna landu. Eskola inklusiboak berrikuntza sustatzen du hezkuntza-jarrera gisa.

Azkenik, ikastetxeen ikasketa-proiektuak lantzea proposatzen da, eskola-curriculumeko gaitasunen ikuspegia ardatz hartuta. Horregatik, edukiak aukeratzerakoan, oinarrizko gaitasunak hartu beharko ziren kontuan; azken finean, bizitzan erabilgarri diren gauzak ikastea da helburua. Horregatik aniztasuna lantzeko dokumentu berdinean azpimarratzen dute oinarrizko gaitasunak lantzea garrantzi asko duela eskolarentzat.

3.1.4. Hezitzaileak

López-Vélez-en (2018) hitzetan, Ministerio de Educación (2006) dokumentuak adierazten duena jarraituz, eskolan inklusioa lortzera heltzeko bertan dauden irakasle zein gainontzeko profesionalek ere bitartekarien papera hartzea eragingo du; honekin batera, ikasle guztiengan dituzten itxaropenak altuak izan beharko dira. Beraz, ohiko ikasgeletako hezitzaileak ikasle guztiak hartzen eta gelan bertan integratzen ahalegindu behar dira, inongo bazterketarik eman gabe.

Eusko Jaularitzan (2012) babaesturiko dokumentuan esaten da ikasleen aniztasuna balioetsi egin behar dela, eta pertsona guztiei ikasten lagundu behar zaiela ere. Ikasle guzti-guztiei ikastera eta parte hartzera bultzatu behar zaie, batez ere azpimarratzen dituzte gizarte-egoera ahuleko ikasleak, sexuagatik, erlijioagatik, kulturagatik edo etniagatik baztertuak izateko arriskua dutenak. Izan ere, aniztasuna ez dute arazo gisa ikusten; aitzitik, aberasgarria da. Horregatik defendatzen dute hezitzaileek ikasle bakoitzaren eta guztien beharrei erantzuteko laguntza antolatu eta jaso behar dutela.

Ildo beretik, Garcíaren (2008) hitzetan, irakasleek gogoeta bateratua egin behar dutela ikasgela abiapuntu hartuta esaten du. Laguntza koordinatzen eta bideratzen denean, ikasleak beti izan behar dira gogoan, bai eta haien garapena ere. Beraz, autore honek indartzen du ikasgela inklusibo batean irakasleek oso ondo ezagutu behar dituztela ikasle guztien aukerak eta bakoitzak dituen beharrak.

Hortaz, irakasleek gelan bertan bete beharreko eginkizuna, taldearen arduraduna bezala hiru alderdi ditu: burutzen diren jarduera ezberdinen gidaria izatea, taldearen kohesioa eta inklusioa bermatzea eta azkenik, norbanakoen arduraduna ere izatea (García, 2008).

“Eskola Inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa” artikulura bueltatuz, Eusko Jaularitzak (2012) garrantzia ematen dio ikasle bakoitzari bere ikaskuntza prozesua garatzeko beharrezkoa den laguntza eskaini behar zaiola. Horretarako, lehenik eta behin, ikasleek, banaka nahiz taldeka nola esku-hartzen duten aztertu behar da. Bestetik, ikasle guztiek burutzen dituzten jardueren zergatia eta haien balioa ezagutu beharko da ere, jarduera horietan ikasle guztien parte hartzea sustatzen den heinean. Ondoren, proiektu zabalak eta malguak egin beharko dira, irakasleek proiektu horietan parte hartzea ekarriko dutenak. Izan ere, Duk-ek (2003) aipatzen duen bezalaxe, irakasleek haien ikasleengan itxaropen altuak edukitzea gako garrantzitsua izango da ikasle hauek ikaskuntzan arrakasta lortzerako orduan.

Ezinbestekoa da irakasleek eta profesionalak elkarlanean jardutea, ikaskuntza-metodoak ikasle guztien beharrei erantzutea eta irakasleek prestakuntza jasotzea. Hortaz, irakasle-talde egonkorrek sustatzea proiektu inklusiboak lantzea errazten du. Izan ere, prestakuntza oso garrantzitsua da hezkuntza-jarduna gero eta inklusiboagoa izan dadin (Eusko Jaularitza, 2012).

3.1.5. *Ikasgela eta espazioaren antolaketa*

Stainback eta Stainback-en (1999) arabera, ikasgelaren antolaketan arreta jartzen bada, ikasgelek inklusioaren prozesuan paper erabakigarri bat dutela diote, eskoletan ikasleak hartzeko lekurik adierazgarrienak dira eta. Gelak komunitate txiki batzuk bezala kontuan hartuak izan ahal dira, bertan ez dagoelako ezberdintasunentzako lekurik eta dibertsitateari ongiatorria ematen zaio. Hortaz, autore hauek gela inklusiboak izan behar dituzten ezaugarrien artean ondoko hauek azpimarratzen dituzte:

- *Ikasgelaren filosofia*: Haur guztiak gelako taldearen parte dira eta eskolan, denak modu normal batean ikas dezakete. Gainera, dibertsitatea eskolak indartzeko modu bat da eta ikasteko aukera gehiago eskaini dezakete.
- *Gelaren arauak*: Bertan pertsona bakoitzaren eskubideak aurkezten dira. Arau hauek ikasle guztientzako bidezko eta berdintasunezko harreman bat islatu behar dute; baita elkarrekiko errespetua ere.

- *Ikaslegoari egokitutako ikaskuntza*: Proposatutako helburu kurrikularak lortzeko, hezkuntza esparru integratzailean zerbitzu eta laguntza zehatz batzuk egokitu behar dira. Honako hau handiagotu edo egokitu egiten da ikasleen ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz.
- *Laguntza ohiko ikasgeletan*: Ikasleren bat inolako egokitzapen kurrikularra behar izatekotan, ohiko ikasgelaren barruan eskaini behar zaio. Saiatu behar gara gelan bertan ikasleen beharrak asetzen, klaseko giro arruntetik alden du edo bereiztu gabe. Bestetik, ezaugarri honen eskutik hurrengo bost azpigai hauek aurkitu ditzakegu:
 - *Laguntza sare naturalak sustatzea*: Elkarrekintza naturalak sortzen dira, ikasleak haien artean laguntzen eta babesten direlako eta estimulu hauek irakasleengandik jasotzen dituzten laguntzak bezain garrantzitsuak direlako.
 - *Ikasgelaren egokitzapena*: kanpoko laguntzetaz ere onurak atera dezakete ere beste ikasleak. Curriculumaren egokitzapenak ez dira bakarrik aurrera eramaten laguntza berezia behar duten pertsonen onurako; azken finean, klase guztiak eskertu dezake kanpoko laguntza hura.
 - *Trebakuntza*: Ikasgela inklusiboetan irakaslea soilik ikaskuntzaren begirale eta laguntzaile gisa aurkezten da eta uzten die erantzukizun hori taldearen gainontzeko partaideei.
 - *Norberak dituen ezberdintasunen ulerkuntza bultzatzea*: hezitzaileak ikasleak bideratzen dituzte taldean egon daitezkeen ezberdintasunak ulertzeko eta haietaz baliatzeko. Ikuspegi garrantzitsu honen bidez, gelaren barruan norberarenganako konfiantza, elkarrekiko errespetua eta komunitatearen laguntza garatzea lortzen da. Helburua, taldearen funtzionamendua aberastea da.
 - *Malgutasuna*: Ezinbestekoa da eskola komunitatearen kide guztiei burua irekitzea arrakasta lortu ahal izateko. Izan ere, malgutasun hau aldaketaren onarpenerako eta antolaketarako zuzenduta dago.

Beraz, López-Vélezen (2018) esanetan ikasleen autonomia eta elkarlana sustatzeko, ikasgelen antolamendu tradizionala alde batera utzi behar da eta beste modu batean antolatzera pasa. Autore honen arabera ikasgela inklusiboetan bost balore erabakigarri izaten dira nagusi kulturak, politikak eta praktika inklusiboak ezartzerako orduan, bai ikastetxean zein ikasgelaren barruan:

- *Berdintasuna*: ez du adierazten pertsona guztiak berdinak direnik, guztiak balore berdinekin tratatu behar direla baizik.
- *Parte hartzea*: ikasgela barruko jarduerak parte hartzea sustatu behar dute eta parte hartze horrek ikaskuntzaren helburuetako bat izan beharko da.
- *Dibertsitatearekiko errespetua*: besteak direnagatik baloratzea, modu justu batez tratatzea eta komunitatean pertsona bakoitzaren kontribuzioa antzematen jakitea.
- *Komunitatea*: beste hainbat hiritarrekin bizi garela konturatzea eta laguntasuna eta afektuko adiskidetasuna beharrezkoa suertatzen dira.
- *Jasangarritasuna*: ikasleak hezi behar dira bizitza estilo egokiak sustatuz.

Bestetik, Echeita (2016) in López-Vélez (2018) adierazten dutenaren arabera, ikasgela inklusiboetan nabarmendu beharreko alderdietako bat ikaskuntza kooperatiboa da, estrategia hau izan baita eraginkortasun handiena adierazi duena. Modu honetan, irakasle bakoitza bere gelako espazioaren jabe bihurtu beharko da, irakaskuntza prozesua txoko moldagarrien bidez eskainiz bere ikasleei. Horregatik, autore hauen aburuz ez da gelaren espazioaz soilik baliatu behar, patioa zein pasabideak ere erabili daitezke. Gune hauetan ikasleriari gainontzeko kideez asko ikas dezatela ikusarazi behar zaie. Era berean, besteen ikaskuntza prozesuan lagundu dezatela hautemanez.

3.1.6. Ebaluazioa

Irakaskuntza arloan, Eusko Jaularitzak (2012) ateratako dokumentuan biltzen duten bezala, kurrikuluaren elementu garrantzitsuenetariko bat hezkuntza prozesuaren ebaluazioa dela esaten da. Hortaz, ebaluaziorako irizpideak inklusioaren edo eskusioaren funtsa izan daitezke. Gainera ebaluazioak, hezkuntza prozesua garatzeko moduari buruzko informazioa lortzeko, hobetzeko eta erantzunak jakinarazteko balio dutela diote. Ikasleak, irakaslea eta bere hezkuntza proposamena ebaluatzen dira, baita ikasleekin eta haien familiekin ezartzen dituen harremanak ere.

Hezkuntzaren kalitatea hobetzeko indarrean dagoen lege organikoan (LOMCE, 2013) esaten den moduan, ikaslearen ikaskuntza prozesuen ebaluazioa jarria eta orokorra izango da eta arlo ezberdinen aurrerapena kontutan hartuko du. Ebaluazioa burutzerakoan ikaslea ezin da modu isolatu batean ulertu, bere osotasunean baizik; horregatik, hausnarketarako etenune bat bezala ulertuko da. Etenune hori prozesu guztian zehar kontuan hartuko da: hasieran nondik gatozen jakiteko (bai ikasleari, bai irakasleari, bai programazioari, bai ikastaldiari dagokionez), bitartean nola goazen jakiteko, eta bukaeran noraino iritsi garen jakiteko eta prozedura guztiak ebaluatzeko.

Garcíaren (2008) usteetan, ikasgeletan burutzen diren ebaluazioei dagokionez, prozesu kooperatibo bat bezalaxe sortu behar dela esaten du. Bertan, ikasleak eta irakasleak parte hartu behar dute. Mota honetako ebaluazioetan besteak beste ikasle bakoitzaren ahalmenak, izan duen bilakaera eta izan duen egokitzapen programa kontuan hartu beharko direlarik.

Bestalde, Condemarín eta Medinak (2000) autoreek uste dute benetako ebaluazioek, ikaskuntzaren zati natural eta osoa bezala kontzeptualizatu behar dutela. Ikuspegi honen arabera hainbat prozedura eta tresna erabili behar dira ikasleen konpetentziak osotasunean eta konplexutasunean ebaluatzeko, garrantzi berezia emanez gelan gertatzen diren eguneroko jarduera esanguratsuei. Horregatik autore hauentzat benetako ebaluazioaren helburu nagusia ikaskuntza prozesuen kalitatea hobetzea da, modu honetan ikasle guztiak ikastearen probabilitatea handituz.

Eskola inklusiboen ebaluazioaren ideiarekin bukatzeko, Eusko Jaularitzak (2012) ateratako artikulua arabera, diagnosi-ebaluazioa curriculumeko oinarrizko gaitasunen gainean gauzatzen dela esaten da. Horrek prestakuntza- eta orientazio-laguntza ematen die ikastetxeei. Edonola ere, argi uzten dute ebaluazio-prozesu horiek egiterakoan kontuan hartu behar dela ikastetxe bakoitzaren errealitatea. Ikasle guzti-guztien hobekuntza bermatuko duten proposamenak aztertu behar direlako.

3.2. Eskola inklusiboa lortzeko metodologiak

Hasteko, metodologia didaktikoaren kontzeptua definitu behar da atal praktikoaren proposamen didaktikoaren helburua hobeto ulertzeko. Kasu honetan, nik aukeratutako lan egiteko metodologia ikaskuntza kooperatiboaren metodologia da. Baina zehazki, zer da metodologia didaktiko bat?

Autore askok ulertzen dute metodologia didaktikoa irakasteko forma bezala. Esaterako, Fortea (2019) aipatzen du “¿Nola irakasten da?” galderari erantzuten dion guzti horrek metodologia didaktikoa zer den definitzen duela. Orduan, autore honentzako, metodologia, irakasleak hezkuntza-ikaskuntza prozesuan aukeratzeko duen jokatzeko modua da.

Kontzeptua argiago geratzeko, autore berdinak metodologia didaktikoak definitzen dituen irakasleak bere gelan ikasleei ikaskuntza zehatzak irakasteko erabiltzen dituen oinarri zientifikoa duten irakaskuntza estrategiak direla esanez. Beraz, metodologia didaktikoa, ikasgela barruan gertatzen den “elkarrekintza didaktikoa” bezala ulertu daiteke (Fortea, 2019).

Era berean, “ikaskuntza estrategia” irakasleak erabakitzen duen araua edo legea da. Gainera, edozein estrategia bere baitan bildu dezake “zeregina”, “prozedurak” eta “teknikak”. Fortea 2019-ren ikuspegitik, ikaskuntza estrategia bakarrik bihurtzen da metodologia didaktikoaren sinonimo, honek frogatutako oinarri zientifiko bat izaten badu.

Laburbilduz Fortearen hitzak, metodologia didaktikoa modu estrategiko eta oinarri zientifiko edo eragile egiaztatu baten bidez irakasteko formari esaten zaio. Hortaz, ezin izan da egiaztatu metodologia bat beste baino hobeagoa denik, egoeraren arabera irakaskuntza-ikaskuntza metodologia hoberena aukeratzea izango da gakoa. Horregatik, metodologiaren eraginkortasuna hainbat faktoreen konbinaketaren mende dagoela azpimarratzen du; hala nola, aurreikusitako helburuak, ikaslegoaren ezaugarriak, irakaslearen ezaugarriak, irakatsi behar den arloaren ezaugarriak eta egoera fisiko zein materialak kontuan izan behar dira metodologia egokiena aukeratzeko. Gainera, metodologia aukeratzeko aurrez-aurretik ongi ezagutu behar dira bakoitzaren abantailak eta desabantailak, hezkuntza helburuak argi finkatuak eduki eta lan egiteko arauak prestatuak izan.

Behin metodologiaren kontzeptua definituta dagoela, lan taldeetan jardutearen garrantzia ezagutu behar da. Aurrerago, ikaskuntza kooperatiboaren ideia eta ezaugarri horiek betetzen dituzten hainbat metodologia azalduko dira; nahiz eta, POI (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza) metodologiari arreta gehiena eskainiko zaion. Hasteko, Johnson eta Johnson-ek (1989) ondorioztatzen dute taldean lan egiteak ekartzen dituen onurekin batera, lorpen indibidualetan ere eragin positiboa duela. Gainera, bi autore hauen esanetan ikasleek errendimendu hobea izan ohi dute eta informazioarekin errazago geratzen dira talde kooperatiboetan lan egiten dutenean indibidualki lan egiten dutenean baino.

Bestalde, Johnson-ek eta Johnson-ek (1989) aztertu bezala, taldeek pertsonarteko harremanak hobetzen dituzte. Ikasle guztiek lagunak diren gelakideak behar dituzte: errespetuz tratatzen dituztenak eta pertsona bezala baloratzen dituztenak. Esperientzia kooperatiboak lehiakorrek eta indibidualistekin konparatuz erlazio positiboagoak eta motibagarriagoak dituzte. Talde kooperatiboetan lan egitean lagun gehiago egiten dira eta baztertuak diren ikasle gutxiago daude.

Johnson anaiek (1989) taldeetan lan egitea ikasleen osasun mentalean eragina duela frogatu zuten. Talde baten parte izatea partaide bakoitzari onurak dakarkio, informazio eta emozio errekurtso gehiago eta rol ezberdinak hartzeko aukera ere. Taldean lan egitean gaitasun sozialak garatzen dira ere. Horregatik, taldean lan egiteko beharrezkoak diren hurrengo gaitasunak lantzen direla baieztatzen dute: komunikazioa, egin beharren banaketa, lorpenak eskaintzearen eskuzabaltasuna, kritika konstruktiboa, besteekiko kezka, eskuzabaltasuna, ikasleak laguntzea eta talde sentimendua. Gaitasun hauek etorkizunean arrakasta izateko, modu indibidual batean konpetentzia akademikoak eskuratzea bezain garrantzitsuak izan daitezke. Soilik ikaskuntza akademiko indibidualari garrantzia ematea irakaskuntza moteltzeaz gain ikaskuntza pobretu dezake (Johnson eta Johnson, 1989).

Beraz Pujolásen (2002) hitzen arabera esan daiteke, ikaskuntza kooperatiboak talde txikien bidez lan egitean duela oinarri. Talde hauek hiru edota bost ikasle heterogeneoen artean sortzen dira. Ondorioz, taldeen helburuen lorpena taldekide guztien inplikazioaz baldintzatuta dago. Hau da, "ikasteko kooperatu egin behar dute eta kooperatzen ikasi" (Pujolás, 2002). Izan ere, oso garrantzitsua da irakaslea talde kooperatibo bat zer den ezagutzea modu honetan hau bere gelan martxan jartzeko (Johnson eta Johnson, 1999).

Ikaskuntza kooperatiboan ikasleak elkarrekin lan egiten dute helburu komun batera iristeko. Helburu hau lortzeko ikasle guztien parte hartze aktiboa berebizikoa da eta modu honetan ikasleak haien ikaskideengandik ikasteko aukera dute. Taldekide guztiek argi dute elkarrekin lortuko dutela helburua edo elkarrekin huts egingo dutela talde bezala, indibidualtasunak alde batera utziz eta taldekide batek huts egiten badu, denek huts egingo dutela. Bestalde, taldekide bakoitzak lan ona egiteko eta helburuak lortzeko ardura hartzen du eta bere taldekideak arduradun egiten ditu.

Aurreko azalpenarekin ondorioztatzen du metodologia ezberdinak existitzen diren moduan irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari ekiteko beste modu batzuk, bakoitza bere xede eta ezaugarriekin, badirela ere. Horrela, Pujolásek (2002) ikaskuntzaren egituraketa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan esku hartzen duten elementu multzo gisara definitzen du. Honako elementuek, irakaslearen azalpenak, ikasleek egiten dituzten jarduerak, gelako antolaketa zein ebaluazio moduari ere erreferentzia egiten diote. Gauzak horrela gerta daitezten, irakasteko metodologia egokiak erabiltzearen garrantzia azpimarratzen du autore honek eta horretarako aporpostzat jotzen dira metodologia aktibo deritzaienak.

Horregatik, irakaskuntza metodologia kooperatibo batzuk aztertuko dira hurrengo lerroetan, bukatzeko atal praktikorako erabili den metodologia sakonago azalduz. Hurrengo hauek dira M. Reyes Carretero (2009)-ren arabera gaur egun gehien erabiltzen diren metodologia kooperatiboak: puzzle metodoa, elkarrekiko irakaskuntza, berdinen arteko tutoretza, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI), Kasuen azterketan Oinarritutako Ikaskuntza (KOI) eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI).

3.2.1. Puzzle metodoa

Carreterok (2009) ateratako “metodologia didaktikoak” dokumentuan azaltzen du metodo berritzaile hau Elliot Aronson-ek 1978an sortutako metodoa dela. Kasu honetan, taldekatzea bera da eta bertan ikasle bakoitza gai batean aditu bihurtzen dena. Gainera ideia da beste talde batzuetako gai bereko adituekin elkartzea edukiak hobe barneratzeko eta adosteko. Behin ikasle bakoitza bere gaien aditua bilakatzen denean, bere taldera bueltatu behar da gainontzeko taldekideei gaia irakastera.

Izan ere, M. Reyes Carreterok (2009) esaten duen bezala, bi taldekatze mota sortu behar ditu gela horretako tutoreak. Lehenik eta behin, gela osoa talde heterogeneoen bidez banatu behar da; hau da, ikasle kopuru bereko taldek egin gaitasun maila, interesak, generoa, etab. kontuan hartuz denak nahasiak egoteko. Bestetik, talde heterogeneoak sortuak ditugunean taldekatze berriak sortzen dira eta kasu honetan taldeak homogeneoak dira. Talde hauei, "adituen taldea" deitzen zaie eta sortu ahal dira intereseko gai berdina duten ikasleen artean, maila akademiko antzekoa dutenak, etab. Adituen taldeen helburua da tokatu zaien gaietan adituak egitea gero bere hasierako taldeari edukiak modu ulergarri batean azaldu ahal izateko.

Orduan, autore honen hitzen arabera ondorioztatu daiteke ikaslea jakintsu egiten dela edukien atal batean (puzlearen piezetako batean). Gero, irakasleak markatzen duen denbora igarota, aurretik prestatutako informazioa bere taldekideen artean amankomun jartzen saiatu beharko delarik. Hortaz, kide bakoitzak egiten duen ekarpena ezinbestekoa bihurtzen da taldea ikasgaia ulertu ahal izateko; edo beste modu batez esanda, puzzlea osatzeko (Carretero, 2009).

Ikasleei irakurketa testu motzak esleitzen zaizkie taldeka (liburuetako kapitulu motzak, azalpen testuak...). Carretero (2009)-ren esanetan, puzzle metodoa aplikatzeko fase batzuk jarraitu behar dira. Hasteko, talde bakoitzeko partaide bakoitza zerbaitetan espezialista bihurtzeko aukeratua izaten da. Horretan espezialista egiteko materialak irakurri beharko dituzte. Gero talde bakoitzeko espezialistak beste taldeetako historia-espezialistekin batuko da irakurritakoaren inguruan hitz egiteko eta ulertu dutena komunean jartzeko. Ondoren bakoitza bere taldera itzultzen da eta ikasi duten hori bere taldekideei azaltzen die. Bakoitzak espezializatu den horren inguruan hitz egiten die besteei; hortaz, talde baten partaide bakoitza gaiari buruzko edozein galderari erantzuteko gai izan beharko da, bere espezialitatea zein den inporta gabe.

Azkenik eta argumentu berak jarraituz, kalifikazioa taldekoa izango da partaide batek dakiena bere taldekideek azaldu dutenaren menpe dagoelako.

3.2.2. *Elkarrekiko irakaskuntza*

Bigarrenik, elkarrekiko irakaskuntzaren metodo kooperatiboa azalduko da. Palincsar eta Brown-ek (1984) sortutako metodo honen oinarritzko ideia ikasleak haien artean irakastea da. Bakoitzak eginkizun bat betetzen du, baina aldi berean helburu komuna lortzeko laguntza osagarri bat da. Gainera, beste ikasleen txanda denean daukaten funtzioa egiten irakasten die (Carretero, 2009).

Lehenik, Carretero (2009) esaten duen moduan taldearen aukeraketa eta osaketa egin behar da. Beraz, interesgarria izango zen taldeak heterogeneoak izatea partaideen gaitasun mailaren aldetik, burutu beharreko lanak egiteko. Arrazoi horregatik, taldekatzeak irakasleak egin beharko ditu kideak hoberen ezagutzen dituen pertsona delako. Bestalde, bete beharreko eginkizunen aurreformakuntza bat izan behar da.

Autore honek azaldutako aplikazio fasearen urratsekin jarraituz, ondoren taldeen funtzionamendua eta jarraipena doa. Irakaslea arduratu behar da ikasle bakoitza barneratzen eta ulertzen ari duela berari egokitutako funtzioa. Dena ongi badoa, eginkizun berri bat burutu behar dutenean gomendagarria da ikasle bakoitzaren funtzioa aldatzea. Hau da, metodologia hau gehien erabiltzen da testuak taldeka irakurtzeko eta barneratzeko. Orduan, testu bakoitzean taldeko kide bakoitzak funtzio bat izango du (ozenean irakurtzen duena, ulerkuntza galderak egiten dituen, erantzuten duena eta edukiei aurreratzen dena) eta gomendatzen duen bezala, interesgarria da funtzioak aldatzen joatea testu batetik bestera pasatzean.

Horregatik eta Carretero (2009) azpimarratzen duen moduan, irakaslearen papera oso garrantzitsua da metodologia honetan. Lehenik, gomendagarria da taldeko kide bakoitzak bete behar dituen eginkizun desberdinak moldeatzea. Gero, betekizun bakoitzaren kalitatea eta konplexutasuna hobetzen saiatzeko, etengabeko jarraipen bat eginez. Azkenik, ebaluazioari dagokionez, eginkizun bakoitzaren garapen egokia, testuaren ulerkuntza indibiduala eta taldeak prestatutako produktua (baldin eta badago) ebaluatuko da.

3.2.3. *Berdinen arteko tutoretza*

Metodologia didaktiko hauek definitzeko erabili den autore berdinen esanak jarraituz, berdinen arteko tutoretzaren teknika ikasleen arteko bikote asimetrikoen eraketan datza. Kasu honetan, bikoteko batek tutorearen papera hartuko du eta bestea ikaslerena. Hortaz, tutoretza hasi baino lehenago helburu komun, ezagun eta partekatu bat izan behar dute; eduki berrien irakaskuntza eta ikaskuntza ematen da elkarreragin antolatu bat baldin badago.

Beraz, metodologia honek abantailak eskaintzen dizkio bai tutorearen papera hartzen duenari, baita ikaslea bihurtzen denari ere. Tutoretzaren tutoreak, edukien menderatzen nabarmena izan beharko du gero irakatsi behar dituelako. Beste aldetik, Carreterok (2009) tutoretza honetan ikaslea dena ikasteko duen etengabeko laguntza indibidualizatuaz eta egokituaz baliatu ahalko dela argi uzten du.

Izan ere, autore honek (2009) azaltzen duen bezala, lehenik bikoteen aukeraketa eta ezarpena doa. Lortu nahi diren helburuen arabera adibidez eskola inklusibo bat lortzeko ikasleak mailaren arabera nahastu ahal dira, etab. Dena den, rol bakoitzaren prestaketa eta formakuntza behar da (eginkizunak azalduz, egiaztatuz...). Ondoren, bikoteen funtzionamendua eta jarraipena behatu egin behar da. Azkenik, metodologia honen ebaluazioarekin amaituz. Bikote bakoitzaren autoebaluazio eta koeboluzioaz aparte, autoreak nabarmentzen du metodologia honen emaitza zehatzak ateratzeko kontuan hartuko dela ere prozesuan zehar eginiko behaketa jarraia. Hortaz, ebaluazioa osatu ahal da frogara edo lan finalekin, lortu nahi dugunaren arabera.

Metodologia aktibo honen orientazio moduan Carreterok (2009) berdinen arteko tutoretza arrakastatsua lortzeko bikotekideen arteko rol (tutore eta ikaslea) harremanak ongi finkatzea planteatzen du. Zalantzarik gabe, aurretik prestakuntza bideratu bat eginez. Beste alde batetik, partaideak rol ezberdinak ikasteko eta hauek praktikatzeko denbora zehatz bat uztearen alde dago autore honek. Azken aholkua izango litzateke, tutoretzaren partaideak egiten ari duten progresu bakoitzarentzat irakaslearen feedback-a entzutea ezinbestekoa dela. Bai bileraren tutoreari egingo diona eta baita irakaskuntza jasotzen duen ikasleari ere.

3.2.4. Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza

Irakaskuntza metodo hau ez da berria eta Navarrok (2006) dioen moduan 1970. urtean sortzen da. Ikaskuntzarako arazo errealen eta material zein edukien erabilera adierazgarria da eta metodoak talde txikitik eginiko lan kooperatiboan parte hartzea eskatzen du. Honek, arazo erreal bati erantzun ezberdinak ematera behartzen du eta horretarako segida bat ematen da praktika burutzeko.

AOI metodologia, Navarroren (2006) hitzen arabera, arazo konkretu batean oinarrituta dago. Ikasleari aztertu beharreko arazoaren berri eman behar zaio eta hipotesi eta xedeak formulatuaz, arazo horri irtenbidea ematen saiatu behar da. Arazoak oinarritzat hartu behar dira edukiak bereganatu eta ikasleak aplikatzeko. Lan autonomoa eta talde lanean lortu behar dituzte irakasleak arazoaren bitartez planteatutako helburuak. Kasu honetan, ikasleak ikaskuntza prozesuaren pertsonaia nagusiak dira, hau da, estrategia eraginkorra eta malgua erabiliz ikaskuntzaren partaide aktiboak dira.

Bestetik, Carreteroren (2009) azalpenak diote arazoetan oinarritutako ikaskuntza talde txikietan (3-4 partaidetakoak) oinarritzen dela, gehienetan ikasleen gaitasunen arabera egingo delarik. Lan taldean, beraien ideiak edo proposamenak aurkeztu behar dituzte eta horrela taldean, eztabaidak emango dira ideien trukaketari esker ezagutzak handituz. Gainera, ikaskuntza prozesu bat bezala lantzen du, ikastean ematen den gatazka kognitiboari irtenbidea emanez. Beraz, ikaskuntza prozesuan ikaslea pertsonaia nagusia da; norberak bere ikaskuntza prozesuaren garapenaren arduraren hartzen duelako. Irakaslea aldiz, ez da ikaskuntzaren pertsonaia nagusia baizik eta ikaskuntza prozesua emateko laguntzaile edo orientatzailea bihurtzen da.

Bestetik Espejo eta Sarmientoren (2017) arabera, ikaskuntzaren abiapuntua arazo erreal eta zehatz bat da. Ikasle taldeek, irakaslea gidari dutela, arazo horri konponbidea emanez eraikitzen dute gai jakin bati buruzko ezagutza. Hortaz, autore hauen azalpenak jarraituz hurrengo hauek izango lirateke AOI gauzatzeko urratsak: lehenik irakasleak lortu nahi dituen ikaskuntza emaitzak lortzeko aukera ematen duten gaiak prestatzen ditu. Gero arazoa aurkezten da eta ikasleek arazoaren analisia egiten dute eztabaidatuz eta hipotesiak sortuz. Ondoren, arazoa ebazteko beharrezkoak diren eta falta zaizkien ezagutzak identifikatzen dira. Horri esker, ikasle bakoitza ikaskuntza indibiduala egiten du eta ikasleek eraikitako ezagutzak trukatu eta arazoa ebazten dute.

3.2.5 Kasuen azterketan Oinarritutako Ikaskuntza

Bostgarren metodologia didaktiko hau Espejo eta Sarmiento (2017) honela definitzen dute: egoera zehatz baten narrazioa eta egoera erreal horren konplexutasuna eta anbiguotasunaren aurrean konponbide posibleak aurkitu behar dituzte ikasleek. Kasu honetan, ikasleari narrazio baten bidez kasu bat (bizitza errealeko kasu problematiko bat) planteatzen zaio. Ondoren, ikasleak kasuaren balorazio bat egin beharko du iritzi bat emanez. Hori egin eta gero kasuari irtenbidea emateko ebazpena eta hobekuntzak planteatu beharko ditu. Azkenik, ikasleak gai izan beharko dira haien artean soluzio eraginkorrena edo onena aukeratzeko.

Hala eta guztiz ere, autore hauek diote kasuaren narrazioak erabilgarriak izan behar direla ikasleentzat eta kasuarekin batera ikasleei konponbideak aurkitzeko orientabideak eman behar zaizkiela ere. Hauek kasuari buruzko informazioa jaso eta beren kabuz aztertzen dute eta azkenik, ebaluazio irizpideak aurrez zehaztu behar dira kasuari soluzioak bilatzeko.

Dena den, Carretero (2009) defendatzen du modalitate bat baino gehiago posible daudela ikaskuntza aktibo hau garatzeko; hala nola, banaka, talde txikietan, talde handietan,... Adin, ikas-maila eta arlo desberdinetan erabilgarria izan daiteke; baina hobe da lantzen diren gaiak polemikoak eztabaidagarriak eta haientzat gertukoak izatea. Ikaskuntza prozesuan zehar ikasleen ekimena, autorregulazioa, autonomia, autoebaluazioa,... gaitasunak landuko dira. Orduan, ikasleetan inplikazio eta motibazio maila altuak emango dira ikaskuntza esanguratsua ahalbidetuz.

Azkenik, Kasuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologia garatzeko 4 fase bete behar direla planteatzen du Carreterok (2009). Lehenengo fasea indibiduala da eta Curriculumarekin bat eginez kasuaren oinarrizko datuak aurkezten dira, analisirako erabilgarriak izan daitezkeen kontzeptu eta printzipioen identifikazioaren bitartez. Gainera, kasua ulertzeko hainbat galdera planteatzen dira ezagutzen ez dugun informazioa eskuratzen lagunduz. Bigarren faseari dagokionez, kasuaren analisia taldeka egiten da. Beraz, taldeak eratu eta gertaerari buruzko informazio gehigarria lantzen da. Aldi berean, kausa eta ondorio posibleen inguruko hasierako formulazioen ideia zaparrada botatzen da.

Hirugarren fasean kasuaren analisia egiten da; hau da, hasieran hautatutako ideia berregin maila adituago edo profesionalago batera eramanez. Baita proposatutako aukeren eztabaida ematen da, beti ere eztabaida bideratu bat eginez. Azkenik, laugarren fasean ebaluazioa ematen da aurreko metodologietan azaldu den bezala. Kasu honetan, aukeratutako irtenbidea gartzen da eta jarraitu den analisi prozesua azaldu eta ikasi dena aztertu (hasierako ezagutzekin alderatuz) egiten da.

3.3 POI (Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza kooperatiboa)

García-Varcácel eta Balistotak (2017) idatzitako artikuluan, Dewey autoreak aipatzen da eta honek 1993. urtean metodoak duen garrantzia azpimarratzen du ikaskuntzarako egiten diren diziplina anitzeko proiektu gisara. Metodoak zereginetan oinarritzen diren ikaskuntza-irakaskuntza moduan definitzen dute autore hauek; honek amaierako produktu bat helburu izan behar duelarik. Irakats estilo honek, ikasleengan ikuspuntu kolektibo batez lan autonomo eta banakakoa bultzatzen du. Hortaz, "ikasleak taldeetan elkartu eta beren intereseko gai bati buruzko proiektua garatzen dute" (Espejo eta Sarmiento, 2017).

Metodologia berritzaile hau azaltzeko, De Miguel Díaz (2005) "Modalidades de enseñanza centradas en el desarrollo de competencias" aldizkariak dioen moduan, POI baten oinarri teorikoak teoria eraikitzailetik datoz gehien bat (Vigotsky, Barrows, Bruner, Piaget...). Hortaz, Proiektuetan Oinarrituriko ikaskuntza ikaskuntzarako metodologia berri bat dela eta Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntzaren (AOI) metodologiarekin antzekotasun handia dutela nabarmentzen du. Daukan ezberdintasuna AOI batean irakasleak planteaturiko arazo bati konponbidea eman behar zaiola eta POI batean ordea, irakasleak proiektu bat proposatzen du eta azkenean ikasleak proiektu hori aurkeztu behar dute.

Esan bezala, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza metodologia didaktiko bat da, non ikasleek ikerkuntza bat egin behar duten irakasleak planteaturiko proiektua burutu ahal izateko. Proiektu hauetan ikasleak, bere erritmoa eramaten dute, egoera errealak eta hipotetikoak praktikan jartzen dute, bere proiektuaren ebaluazioa egin, proiektuaren gaiaren inguruan ondorioak ateratzen dituzte eta kasu askotan proiektu hauek klasetik ateratzen dira (Yarritu, 2013).

Gainera eta De Miguel Díazen (2005) arabera POI baten gakoak lan praktikoak burutzea izaten da normalean eta hori ikasleari motibatzen dio, beraz, egiten diren POI-ak normalean arrakasta handia izaten dute. Proiektuen bidez lan egiten denean, talde lanen bidez izaten da eta taldean lan egiteko trebetasuna eta gaitasuna handitu egiten da. Taldean lan eginez gero. Ikasleak motibatuago bat eta jarrera aktiboa izan ohi dute, gainontzeko kideetatik iritzi ezberdinak hartuz eta horiek errespetatuz. Hortaz, autore honen esanetan, ikaslea ez du bakarrik bere ezagutza eraikitzen, inguru hurbileko influentziak hartuz (kasu honetan taldekideak), bere ezagutza ere eraikitzen duela dio.

Beraz, De Miguel Díazen artikuluan argitaratutakoaren arabera honako abantailak edo aukerak emango dizkigu POI batek: ikaslea ikaskuntza prozesuan arreta gehiago jarriko du; autonomia eta ekimen pertsonala indartuko ditu; ikaslearen jakin-mina indartuko da; lankidetzak eta talde-lanean egotea bultzatzen da, ikaslea ezagutza berriak eraikitzeko gai izango da eta ikasteko metodo adierazgarri berri bat ezagutuko du.

Bestalde, Carretero (2009) dioen moduan, POI bat hainbat epe edo fase izan behar ditu. Normalean epe guztiak hiru fasetan laburtzen dira: hasierako fasea edo proiektuaren aurkezpen orokorra; bigarren fasea edo proiektuaren garapena; eta azkeneko fasea edo proiektuaren emaitza. Hortaz, metodologia didaktikoak bultzatzen dituen autore honek modu honetan azaltzen ditu jarraitu beharreko pausuak: hasierako fasean proiektua aukeratzeko da eta gaiaren inguruko aurreiritziak, lehendabiziko galderak, jakin nahi duguna, etab. planteatzen da. Bigarren fasean, proiektuaren planifikazioa dator lortu nahi duguna erabakitzeko eta rolen banaketa, denboralizazioa eta eginkizunak definituz. Aldiz, ekintzen garapena hirugarren faseari dagokio. Honek suposatzen du informazioaren bilaketa eta antolakuntza, gure proiekturako garrantzitsuena dena aukeratu, bere egiazkotasuna frogatu, etab. Laugarren fasearekin bukatzeko, proiektuaren ebaluazioa egiten da. Bertan proiektua nola joan den behatuz, ikasitakoa eta prozesua ebaluatuz eta autoebaluazio edo koeboluzioa eginez.

Behin aurreko metodologia kooperatiboak azalduta, aipatzea M. Reyes Carretero (2009) beste metodologia osagarri batzuk azaltzen dituela ere "Metodologia didaktikoen" gida horretan. Hortaz, hauetako bat ere aukeratu izan dut proposamenerako erabiliko dudan metodologia nagusia (POI) sendotzeko. Nire kasuan, lan tailerrak zertan datzan azaltzen arituko naiz, gero kasu praktikoa aurrera eramateko oinarria izateko. ,

Carreteroren (2009) azalpenak jarraituz, tailerrak antolaketarako eta metodologiarako estrategia batzuk dira eta ikasleen interes zein gaitasun ezberdinei erantzun bat ematea baimentzen dute. Hala ere, antolaketa mailari dagokionez, ikasgela batean tailerrak modu ezberdinetan egituratu daitezke, nahiz eta kasu gehienetan gelaren espazioa soilik egun baterako transformatzen den. Ideia honekin eskolaren espazioa malgutzen da eta klasea denbora zehatz batez tailer batean bilakatzen da. Hortaz, ikasleak tailerretan egon ahalko dira bere gelakideekin bakarrik edo nahastuta beste gelako ikasleekin batera.

Bestalde, tailer bakoitzaren oinarria prozedurazko eduki zehatz bati edo batzuei zuzenduta dago. Ideia da ikasleak bakarrik aritu ahal izatea jarduera bakoitza egiten, sekuentzia logiko bat jarraituz eta irakaslearen laguntza konstantea bilatu gabe. Gainera, "Metodologia didaktikoen" gidak esaten duen moduan, tailerretan praktikan jarri ahal dira klasean aurretik landutako edukiak edota ezagutza berriak aplikatu. Nik planteatutako tailerretan indartuko dira klasean izaki bizidunen gaiaren inguruan landutako edukiak eta modu honetan kontzeptuak barneratzeko lagungarria egingo zaie.

Bestalde, proposatutako lan gehienetan produktu bat sortu behar dute eta horrek asko motibatzen die ikasleei taldeka lan ona egitera. Aldiz, beste tailer batean ez zaie eskatuko produktu bat sortzea baizik eta ikasitako kontzeptu berriak praktikan frogatu ahalko dituzte kasu errealekin, horrela lantzen dena argiago geratuz.

Azkenik, tailerren bidez lan egitean irakaslearen papera proiektuaren gidaria izatea da. Hau da, tutoreak taldeen lanaren planifikazioa prestatzen lagunduko du (behar izatekotan). Aldi berean, suertatzen diren zalantzak argitzeko prest egon behar da, ikasleen erantzunen arabera egokitzapenak egin eta ikasleen arteko elkar-laguntza sustatzeaz arduratuko da. Gainera, tailerren proposamenean zehar irakasleak, ikasleak behatu eta hauen datu bilketa egin ahalko du gero ebaluazioa osatzeko.

4. KASU PRAKTIKOA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

4.1. Justifikazioa

Nire proposamen didaktikoa eskola inklusibo bat lortzera bideratuta dago. Horretarako, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzaren metodologiaren bidez lan egitea proposatzen dut. Ikasleen gaitasunak garatzen laguntzen dituzten lankidetzan oinarritutako metodologietako bat da eskola inklusiboa geletan sustatzeko.

Gaur egun eskoletan ikasleen arteko lan kooperatiboak gehiago bultzatzen ari direnez gero, proiektuen bidez lan egitearen ideia Ordiziako Urdaneta ikastetxearen “Amara Berri” sistemaren proposamenak inspiratu eta animatu nau aurrera eramateko. Urdaneta ikastetxean lan egiten duten moduari arreta berezia jarri nion nire inguru hurbileko hainbat irakasle hitz egin zidatelako Amara Berri proiektuaren bidez lan egiten zutela bertan. Izan ere, Amara Berri sistema gero eta hedatuago dago hainbat ikastetxeen artean eta Ordiziako eskola nik hartu dudan adibidea besterik ez da izan. Sistema honen sarearen barruan aurkitzen diren ikastetxeen artean ez ditugu Nafarroako eskolarik aurkitzen eta gehien bat Gipuzkoan martxan jartzen ari dira; nahiz eta, Araba eta Bizkaiaren artean 10 ikastetxe sarean elkartu.

Amara Berri sistemaren ezaugarriak ikertzea, saiakuntzak egitea eta berritzea dira. Gaitasunetan oinarritutako curriculumak ikasgelako jardueretan garatzean, horrek metodologia-aldaketak dakartza hezkuntza-jardunean eta antolamendu-aldaketetan. Dena den, eskola komunitatea osatzen dugun guztiok rol berriak hartzeko prest eta inplikaturik sentitu behar gara.

Bestetik, nahiz eta nik proposamenerako Ordizian lan egiteko erabiltzen duten POI metodologian arreta jarri, argitzea ez dutela Amara Berri sisteman bakarrik metodo honekin lan egiten. Ideia askoz irekiagoa eta malguagoa da. Horregatik, Urdaneta ikastetxeak (Ordizian) egungo metodologia tradizionalak alde batera utzi eta metodologia berritzaileak aurrera eramaten ditu. Honek eskola inklusibo bat lortzeko bidea irekitzen digu eta aniztasunak eskatzen dituen beharretara ongien moldatzen den metodologia da. Praktika hauek ikasketa memoristikoa

alde batera uztea bideratzen dute, lan kooperatibo eta konplexuago bat bultzatuz. Estrategia berritzaile hauei esker, gizarte berriak dituen beharrei erantzuna ematea bilatuko da. Hala nola, imaginazioari eta sorkuntzari bideak irekitzeko ariketa plastikoak proposatzen dira eta honen bitartez, ingurune irakasgaiaren edukiak praktikan jarriko dira ikasketa prozesua kooperatiboa, motibatzailea eta esanguratsua izan dadin. Ikasketa estrategia honen bidez ikasleek bizitza errealean duten proiektuak planeatu, inplementatu eta ebaluatu egiten dituzte. Gainera, sorkuntza, funtsezko faktore berritzaile bezala lantzen hasi da hezkuntza sistema askotan. Eraikuntza bultzatzen da aurre-ezagutzak eta ezagutza berriak kontuan izanda; hortaz arrakasta ulermenaren kalitatearekin adierazten da.

Pertsona guztiak desberdinak garen heinean, bakoitzak bere aukerak eta mugak izan behar ditu. Hortaz, desberdintasunak eta aniztasunak (fisikoa, psikikoa, soziokulturala, ekonomia, hizkuntza, arraza, sexua, pentsaera) eskola-elkartearen parte dira. Ikuspegi horretatik, elkarrekin konpentsazioa proposatzen du. Marko teorikoan esan bezala, POI metodologia honek ikasle guztiei aukera ematen die modu inklusiboan ikasteko, ezagutza sozialak eraikiz. Gizabanakoa taldeen gaineratik dago eta.

Lehenengo erronkan bakarka eta metodologia indibidualizatu baten bidez lan egingo dute edukiak barneratzeko. Proposamenaren bigarren zatian aldiz, talde kooperatibo eta heterogeneoetan lan egingo dute eta bertan sormena eta originaltasuna erabiliko dute proposaturiko 5 tailerren bidez. Bukatzeko, ikasleei ebaluatzeko tresnak berritzaileak izango dira eta horretarako lan taldeak mantenduz, "Kahoot" programa erabiliko da galdetegi bat osatzeko. Modu honen bidez, irakasleak proiektatuko dituen gaiaren inguruko galdera batzuk eta taldeka ozenean, bozeramaileak galdera bakoitza erantzuten joan beharko dira, aurretik taldean adostutakoa errespetatuz. Horrela ebaluatu ahalko zaie klasean landutako edukiak barneratu dituzten edo ez, eta gero ikusteko ikaskuntza esanguratsua izan den, talde bakoitzari "taldearen autoebaluazio" bat emango zaie denen artean betetzeko.

4.2. Testuingurua

Aurrera eraman den izaki bizidunen lan kooperatiboa Proiektuetan Oinarritutako metodologia erabiliz, Zizur Nagusiko Erreniegako ikastetxe publikoan burutu da. Hona hemen datu orokorrak:

- Herria: Zizur Nagusia
- Ikastetxea: Erreniega Ikastetxe Publikoa
- Etapa: Lehen Hezkuntza
- Ikasmaila: 3. maila (8-9 urte)
- Ikasle kopurua: 44 ikasle (bi taldeetan banatuta)
- Neska eta mutil kopurua: 25 neska eta 19 mutil

Zizurreko ikasleetaz gain, hainbat herrietako ikasleak elkartzen dituen ikastetxea da eta biztanleria handitzen joan zen heinean, ikastetxea erduetan banatu zen (A, D eta G ereduak banatuta geratuz), D erdua ikastetxe propioa bihurtuz. Zernahi gisa, 2013an Kalitatearekiko konpromisoa hartu zuten, gaur egun honetan lanean jarraitzen duten proiektua, alegia.

Bestalde, hezkuntza proiektuari dagokionez Erreniega ikastetxearen xedea, euskara eta euskal kultura ardatza izanik, gaur egungo gizartean haur guztiei beren garapen integrala ahalbidetzea da, giro positiboan eskola eta familiak elkarlanean. Gainera, eskolaren helmugetako bat ikastetxe inklusiboa izatea da; hau da, ikasle bakoitzaren gaitasunen garapen handiena lortzen duena. Ikasle eleanitzak izan daitezten, euskara, gaztelania eta ingelesean konpetentziak garatzen dira eta metodologia zein teknologia berrietan oinarritzen den hezkuntza eskaintzen du.

Nire proposamen praktikoa azaltzen hasi baino lehen, jakinarazi nahi dut Covid-19 egoerak ezin izan didala nire proposamena bukatzen utzi eta erdizka geratu naizela. Orduan, pentsatutako proiektua 2 asteetan egiteko hiru faseetan antolatuta zegoen, Beraz, bederatzi egun izan nituen proiektuaren hasierako fasea bukatutzat emateko; baina, hamargarren egunenean (proposamenaren bigarren fasea egin behar nuenean) konfinamendu egoeran sartu ginen eta eskolak itxi ziren. Hortaz, izaki bizidunen gaia nik prestatutako hainbat materialen laguntzarekin azalduta geratu zen baina, atal praktikoa burutu gabe geratu da eta

ezin izan ditut ikusi nire proposamenaren helburuak bete diren, ikasleen emaitzak zeintzuk izan diren, etab.

Bestalde, nahiz eta proposamenaren zati praktikoaren emaitzak ez ikusi, erabili behar nituen baliabide eta material guztia aurretik prestatua utzi nuen. Baita ikasleak ebaluatzeko erabili behar nituen baliabideak ere. Hortaz, proposamenean zehar azaltzen joango naiz zer den egoerak egiten utzi izan didana eta zer da praktikan jarri ez dudana.

Proposamena azaltzen hasteko, nire proiektuaren oinarria izaki bizidunen gaia da. Izan ere, Natur Zientzietako edukiak lantzeaz gain, Plastika arloko gaitasunak lantzea ere bilatuko da. Hortaz, Erreniegako LH 3. mailako gela batean “Eskola Praktikak III” egiten ari nintzen eta maila horretako ikasle zein irakasle guztiak ezagututa, nire proposamen didaktikoa 3. mailako ikasle guztiekin aurrera eramatea pentsatu dut. Ikasmila honetako ikasleak 8-9 urtekoak dira gehienak eta praktikak 3.A gelan egiten ari nintzenez, nire gelako zein beste taldeko ikasleak ezagututa errazagoa izan zait tailerrak antolatzea eta prestatzea hauen ezaugarriak jakinda. Beraz, maila guztiko haurrak zenbatuz 44 dira eta proposamena 2 taldeetan egiteko pentsatu dut. Orduan, bi gelatako ikasleak nahastu ditut heterogeneotasuna eta talde kooperatiboak sortzeko eta bi alditan egingo dira aurrerago azalduko ditudan tailerrak.

Hortaz aparte, haur talde honen artean ez dago hezkuntza premia bereziak dituen ikaslerik; beraz, ez nituen egokitzapen berezirik egin. Hala ere, ikasleen arteko aniztasuna eta ezberdintasunak dauden testuinguru batean, badaude ikasleak erritmo desberdinerara joaten direnak edukien aldetik. Horregatik, testuinguruaren hasieran azaldu dudanez bezala, ezin izan dudanez nire proposamena guztiz praktikara eraman, tailerretako lanen prozesua eta emaitzak ezin izan ditut ikusi. Izan ere, proiektuaren hasierako fasean (ikasleak gaian sartzeko) ikasleen artean zailtasun nabariak ikusiz gero, irakasle bezala gidatu edo lana erraztuko nien. Orokorrean hitz eginda, talde bezala nahiko azkarrak eta edukiak ongi barneratuta geratu izan direlakoan nago.

4.3. Denboralizazioa

Unitate didaktiko hau 3 astetan zehar aurrera eramateko pentsatuta dago, 50 minutuko 9 saio eta 100 minutuko saio bakarrean banatuta geratuko delarik. Hala ere, 44 ikasleak bi talde handitan banatuta egongo direnez, A eta B taldeak, 100 minututan egingo diren tailerrak bitan errepikatu beharko ditut irakasle bezala. Orduan talde batek tailerretan egongo zen bitartean, beste taldea tutoreak agindutako ariketak egiten egongo ziren. Gauza berdina, hirugarren asteko 2 ebaluazio saio horietan; A taldea nirekin dagoen bitartean B taldea beste irakaslearekin egongo zen eta alderantziz.

Nire proposamena batez ere tailerretan eta hurrengo astean egin beharko ziren Kahoot jolasean eta ebaluazioetan datza. Horregatik, lehendabiziko 7 saioetan ikasleekin izaki bizidunen edukiak landuko dira, *ezagutzak berotzen* saioak izango direlarik. Klase hauek aurrera eramango dira klasean antolaturik dauden 4-5 kideetako talde heterogeneo txikiak errespetatuz. Hasierako 7 saioak klasean eman ondoren, geratzen diren 3 saioak proposamena burutzeko erabili behar nituen baina tailerrak eta Kahoot jolasa egin gabe geratu dira. Horregatik, nire proposamen praktikoa 7 klaseetan geratu da, 10 saioetan izan beharrean.

Proiektu didaktikoan, fase bakoitzean egingo denaren sarrera bezala, hasierako fasean izaki bizidunen gaiari harrera egiten diogu eta lantzen hasten gara. Bigarren fasetik aurrera proposamena azalduta dago baina praktikan jarri gabe. Ikasleak eduki berriak tailerretan praktikan jarri gabe geratu dira eta hurrengo egunean bete behar zuten taldeko autoebaluazioa eta ikasleak ebaluatzeko galdetegia egin gabe geratu da.

Teoria fasea, proposamenaren lehenengo 7 saioak barnebiltzen ditu. Klase hauek 50 minutukoak dira eta bi aste iraungo du. Honek esan nahi du, aste bakoitzean 4 saio erabiliko direla nahiz eta bigarren asteko azken saioan hurrengo fasea hasiko den. Horregatik, proposamenaren bigarren asteko 3 saio teoria fase honi dagokio eta azkeneko saioa hurrengo faseari.

Garapen fasean aldiz proposamen zati praktikoa burutuko da. Kasu honetan, egun bakar batean aurrera eramango da baina 100 minutuko saio batean. Hortaz, 2 saio arrunt erabiliko ditugu tailerretan ibiltzeko denbora nahikoa izateko. Nire kasuan, proposamenaren gidari bezala, egun horretan bi aldiz

errepikatuko nituzke tailerrak; lehenengo 22 ikasleetako talde batekin eta ondoren, beste 22 ikasleetako bigarren taldearekin. Beraz, garapen fasea egun bakarreko 100 minutuko saio batean burutzeko pentsatuta dago.

Unitate didaktikoari amaiera emateko, *sintesi fasea* hirugarren aste baterako uzten da. Behin aurreko bi faseak eginak edukita hirugarren asteko 50 minutuko bi saio arrunt erabiliko dira proposamena bukatzeko. 50 minutuko lehenengo saioan gaiaren galdetegia eta autoebaluazioa egiteko denbora utziko zaie. Bestetik, 50 minutuko bigarren saioan proiektuen erakustaldirako momentua izango da, taldeka sortutako materiala gainontzekoei aurkeztuz. Hortaz, modu honetan argiago azaltzen da proposamenaren denboralizazioa:

Taula 1. Proposamenaren 1.astea

1. ASTEA: Izaki bizidunak ezagutzen (T fasea)			
1. SAIOA	2. SAIOA	3. SAIOA	4. SAIOA
Ezagutzak berotzen: 50'	Ezagutzak berotzen: 50'	Ezagutzak berotzen: 50'	Ezagutzak berotzen: 50'

Taula 2. Proposamenaren 2.astea

2. ASTEA: Izaki bizidunen errepassoa + Tailerrak (T + G faseak)			
1. SAIOA	2. SAIOA	3. SAIOA	4. SAIOA (G)
Ezagutza berrien errepassoa: 50'	Hezurak, giharrak eta giltzadurak: 50'	Errepaso + praktikak: 50'	TAILERRAK 1. Taldea: 100' 2. Taldea: 100'

Taula 3. Proposamenaren 3. astea

3. ASTEA: Kahoot! galdetegia + Ebaluazioak (S fasea)	
1. SAIOA	2. SAIOA
Kahoot! + AUTOEBALUAZIOA 1. Taldea: 50' 2. Taldea: 50'	ERAKUSTALDIA 1. Taldea: 50' 2. Taldea: 50'

4.4. Baliabide didaktikoak

Baliabide didaktikoak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabiltzen ditugun bitarteko elementuak dira. Ikastetxeko eraikinari dagokionez, bi solairu ditu. Beheko solairuan, bulegoak, jantokia, liburutegia, gela bereziak (fotokopia, ordenagailu, ekintza, psikomotrizitate, etab.) eta haur hezkuntzako gela guztiak aurkitzen dira. Goiko solairuan berriz, lehen hezkuntzako klaseak, ingelerakoak, erlijioa, informatikakoa, musikakoa, logopediako gelak eta pedagogia terapeutikakoak aurki daitezke. Bestetik, patio handi bat daukagu futbol, saskibaloia pista eta frontoia zein libre jolaserako eremua osatzen dutelarik. Izan ere, proiektua burutzeko soilik ikasgela bat behar dugu, nire kasuan 3.A-ko gela besterik ez. Hurrengo taulan erabilitako baliabideak hiru multzotan sailkatu ditut:

Taula 4. Proposamenaren baliabideak

Giza baliabideak	Baliabide espazialak	Baliabide materialak
<ul style="list-style-type: none"> - 44 ikasle - 4 irakasle 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasgela bat 	<ul style="list-style-type: none"> - Ordenagailua - Izaki bizidunen lan txostena - Klaseko koadernoak - Kartulinak - Margoak - Itsaskiak - Guraizeak - Paper handiak - Eskeletoak sortzeko material berezia - Tenis pilotak - Koltxoneta - Zentzumenak lantzeko osagai espezifikak

		- Fitxak
--	--	----------

4.5. Helburuak

Nire proposamenaren helburu nagusia gelan inklusioa lortzeko talde kooperatiboetan lan egitea da eta horretarako Proiektuetan Oinarritutako metodologiaz baliatuko naiz.

Proposamen honetan ikaslearen imajinarioari denbora tarte bat eskainiz hasten da, landuko den gaiaren inguruko aurre jakintzak zeintzuk diren agerian geldituko dira. Hauek jakin ondoren, ikasleek ekintza garatzen duten bitartean ezagupenak sortzea eta garatzea eskatzen du. Modu honetan, parte hartzeak ikasleen ekarpenak egitea bultzatuko du. Honen ondoren, hausnarketa garaia dator, izaki bizidunen gaiaren inguruko eduki berriak berriz ere aztertzeko tarte izaten ahal da, modu honetan ikasleek hausnarketarako eta auto ebaluaketarako aukera izango dute.

Bukatzeko, esan beharra dago proposamen honetan, batez ere Natur Zientzietan eta Plastika ikasgaietan landu behar dituzten eduki ezberdinak modu globalizatuan lantzeaz ziurtatuko garela. Izan ere, Hizkuntzaren edukiak ere sarritan lantzeko aukera izango dute adibidez hasierako fasean testuak eta apunteak erabiltzean, edota tailerretan zehar eta galdetegian taldeko erabakiak hartzeko ahozko hizkuntza landuz. Horregatik, aipatzea ere disziplinarrekotasun printzipioa beteko dela. Hau horrela izanda, jarraian izaki bizidunen gaia ikasteko proposatzen ditudan helburu didaktikoak aurkezten ditut:

HELBURU DIDAKTIKOAK

- Zentzumen organoak ezagutzea. Giza zentzumenen lokalizazio eta eginkizunak jakitea.
- Giza gorputzaren osaera ulertzea.
- Lokomozio aparatuaren hezurak eta giltzadurak ezagutzea.
- Giza gorputzaren giharrak norberaren gorputzean kokatzeko gai izatea.
- Bizidunen eta bizigabeen ezaugarriak desberdintzea.
- Lokomozio aparatuaren atalak identifikatzea eta ezberdintzea.
- Gorputzaren haziera eta aldaketak identifikatzea.

- Zentzumenen bidez hainbat sentsazio (soinuaren norabidea, oinarrizko 4 zapore multzoak, usainen taldekatzea eta ukimen egiturak) identifikatzea eta dagokien zentzumenekin erlazionatzea.
- Zentzumenak zaintzeak duen garrantzia baloratu.

4.6. Edukiak

Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dago, “60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duena” zehazten den bezala. Une oro, curriculuma erreferentziatzen izango dugu proposamenaren tailerrak prestatzerako orduan.

Esan bezala, proposamen didaktikoa 3 faseetan banatu dut, momentu bakoitzean betebeharrak zehatz batzuk esleituz. Horregatik, modu honetan antolatuta geratzen da fase bakoitza.

Teoria fasean, irakasleak arbela digitalean gaiaren eduki garrantzitsuenak apuntatzen joango da eta haurrak haien klaseko koadernoetan kopiatuko dute izaki bizidunen inguruko datu berri eta nabarmen horiek. Argitzearren, saio bakoitzaren hasieran gaiaren errepasoa egiten joango gara eta ondoren informazio berria gehitu. Aldi berean, ikaskuntza oso tradizionala ez egiteko irakasleak fitxa osagarri batzuk banatuko dizkie, ikasleak talde heterogeneoetan daudelarik, taldeka apunteen errepasoa eta galderak erantzuteko. Modu horretan, ezagutza berriak taldeka eta irakaslearen laguntzaz berotuko dituzte.

Izan ere, teoria fasearen azkeneko bi saioak praktikoagoak izango dira landutako edukiak praktikan jartzeko eta tailerretan landuko diren jarduerari hurbiltzen joateko. Esaterako, “fisioterapeuta kontsulta”-ren tailerra burutzeko, aurretik klasean landu genuen antzeko ariketa bat gero praktika hobeto ateratzeko, gainera klase guztiaren aurrean praktikatu genuen eta oso saio dibertigarria egin zitzaizen. Modu honetan, proposamenean praktikan jartzeko orduan ez zitzaizen berria suertatuko eta hobeto barneratuko zuten ideia zein edukiak.

Garapen fasean aldiz, izaki bizidunen feria edo tailerrak egin beharko ziren. Orain arte landutako edukiak modu esanguratsu batean sintetizatzen datza. Momentu honetan irakasleak antolatutako lantalde kooperatiboetan lan egingo zuten,

guztion artean ikaskuntza inklusibo bat lortuz. Nire proiektua egin ahal izateko, oso garrantzitsua da aurretik egindako fasea lotura estua izatea garapenean praktikatu behar dituzten edukiekin. Horregatik nik sortutako fitxak (eranskinetan daudenak) erabiliko dituzte hezurak, giharrak eta giltzadurak ikasteko. Gainera, errepasso bezala egindako klaseko praktikak nik zuzenduko ditut proposamenaren tailerrak prestatzen joateko.

Unitate didaktikoari amaiera emateko, *sintesi fasean* izenak esaten duen bezala, edukiak sintetizatzean datza. Behin eduki berriak landuta, Kahoot! galdetegi birtualaren bitartez frogatuko zaie ea izaki bizidunen gaia ongi ulertu eta barneratu duten. Hortaz, ideia da 15 galdera arbelean proiektatzea eta feriaren taldeak mantenduz, taldeka erantzun zuzena aukeratzen saiatzea. Behin galdetegia eginda, talde bakoitzari autoebaluazio orri bat emango zaie, talde bezala haien burua ebaluatzeko (ebaluaziorako material guztia 3.7 atalean txertatuta dago). Bukatzeko, azkeneko saioan ferian sortutako materialaren erakusketa bat egitea proposatzen da, talde guztiak haien proiektzioak besteoi erakusteko eta azaltzeko. Aurkezpen honen bidez, irakasleari ikasle bakoitzaren errubrika betetzea lagunduko dio.

Laburpen gisa, proposamen didaktiko honekin lantzen ditudan edukiak hauek dira. Alde batetik Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako Natur Zientzien atalera jo dut eta bigarren blokea (gizakia eta osasuna) aztertu dut proposamena garatzeko. Bestetik, Arte Hezkuntzaren arlora joan eta adierazpen artistikoan lantzen ditudan edukiak identifikatu ditut.

Modu honetan, Natur Zientzien zein Arte Hezkuntzaren arloetako edukiak modu zuzenean lantzen dira tailer guztien bidez. Dena den, proposamen praktikoa zehar baita beste arlo ezberdinetako edukiak ere zeharka landuko dituzte. Hala nola, hizkuntza komunikazioa aplikatuko dute idatzizko zein ahozko hizkuntza erabiltzen dutenean adibidez hasierako fasean izaki bizidunen edukiak lantzeko. Gainera, tailer guztietan erabiltzea espero da ere talde kooperatiboetan lan egiten egongo direlako eta erabakiak hartzeko ezinbestekoa delako. Hizkuntzaren edukiak baino maila baxuago batean landu daitezke ere matematiketako eduki batzuk, betiere zeharka, hauek ez direlako proposamenaren ikasgai nagusiak. Hala nola, tailerretan erabiliko dituzten

materiala kalkulatzeko, espazioaren irudikapen bat lortzeko edota momentuan bertan neurriekin loturiko problemak ebazteko.

Beraz, hurrengo tauletan bi zutabeen banaketa antzeman daiteke Natur Zientzien, Plastika eta Euskararen edukien artean. Salbuespen bezala, Euskara hizkuntzaren taula daukagu, arlo honetako edukiak zeharka lantzen direnez soilik curriculumean argitutako edukiak azaltzen dira. Beste bi arloetako edukiak proposamenean modu zuzen eta estrategiko baten bidez landuko direnez bi zutabetan azalduta daude. Ezkerreko zutabeen curriculumean identifikatutako eduki zehatzak agertzen dira. Eskubikoan aldiz, ikastetxetik proposatuak dauden Natur Zientzietako eta Plastika arloetan landu behar ditugun eduki konketuak islatu ditut:

Taula 5. Natur Zientzien edukiak

2. BLOKEA. GIZAKIA ETA OSASUNA	
Lehen Hezkuntzako Curriculuma	Proposamenaren EDUKIAK
<p>- Gizakiaren gorputza. Gorputzaren kanpoko morfologia. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Izaki bizidunen ezaugarriak. - Gizakia beste bizidunetatik desberdina. - Giza zentzumenen (ikusmena, entzumena, dastamena, usaimena eta ukimenaren) lokalizazioa eta eginkizunak. - Zentzumenen organoak. - Zentzumenen higienerako ohiturak. - Zentzumenen bidez zenbait sailkatze lan egitea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Lokomozio aparatuaren osaera eta eginkizunak: giharrak, hezurak, artikulazioak. - Eskeleto sistema. - Artikulazio sistema. - Giza gorputzaren giharrak.
--	--

Taula 6. Plastikaren edukiak

2. BLOKEA. ADIERAZPEN ARTISTIKOA	
Lehen Hezkuntzako Curriculuma	Ikastetxeak ezarritako EDUKIAK
<ul style="list-style-type: none"> - Testurak: testura naturalak eta artifizialak. - Pinturako gaiak: natura hila. 	<ul style="list-style-type: none"> - Lan artistikoak. - Plastika: eskeletoa

Taula 7. Euskararen edukiak

1. BLOKEA. AHOZKO KOMUNIKAZIOA:	
entzumena, ulermena, hitz egitea eta hizketan aritzea	
(Lehen Hezkuntzako Curriculuma)	
<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testuak tipologiaren arabera entzutea eta ulertzea. - Elkarreragina hitzezko eta bestelako mezuak ulertzea eta adieraztea. 	
2. BLOKEA. KOMUNIKAZIO IDATZIA: IRAKURMENA	
(Lehen Hezkuntzako Curriculuma)	
<ul style="list-style-type: none"> - Adinari egokitutako testuak ulertzea. Testuei buruzko galderei erantzutea. 	
3. BLOKEA. HIZKUNTZAREN EZAGUTZA	
(Lehen Hezkuntzako Curriculuma)	
<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko desberdintasun garrantzitsuenak ezagutzea. 	

- Hiztegia hobetzen du ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, izenak eta eremu semantikoak ezagutzuz.

4.7. Oinarrizko gaitasunak eta hauen aplikazioa

Gaitasunak ekintza eraginkor bat lortzeko batera mobilizatzen diren abilezia praktikoak, ezagutzen, motibazioak, balio etikoen, jarrerak, emozioak eta beste zenbait osagai sozialen eta portaerarekin loturiko osagaien konbinazioa dira. Beraz, praktikako ezagutza bezala ulertzen dira, alegia.

Hori horrela, Nafarroako curriculum ofizialean biltzen diren ondoko zazpi gaitasun bereiz ditzakegu:

1. Hizkuntza komunikazioa.
2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
 - a. Matematika gaitasuna.
 - b. Zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.
3. Gaitasun digitala.
4. Ikasten ikastea.
5. Gaitasun sozial eta zibikoak.
6. Ekimena eta ekintzaitza.
7. Kultura kontzientzia eta adierazpenak.

Ikusi bezala, curriculumak azaltzen dituen 7 gaitasun horietatik proposamenaren bidez nagusiki *hizkuntza komunikazioa*, *zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasuna*, *gaitasun digitala* eta *ikasten ikastearen gaitasunak* lantzen dira. Hortaz, nire oinarrizko gaitasunak modu honetan aplikatuak geratuko dira, gaitasun bakoitzean argituz zer modutan aplikatuko den edo ez proposamenean zehar:

Taula 8. Oinarrizko gaitasunen aplikazioa

OINARRIZKO GAITASUNAK	HAIEN APLIKAZIOA PROIEKTUAN ZEHAR
1.Hizkuntza komunikazioa	Gaitasun hau ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilpenean zentratzen da. Alde batetik, tailerrak

	<p>egiteko talde kooperatiboetan daudenez sortzen duten guztia taldekoen artean adostu behar dute. Bestetik, zentzumenen fitxak idatziz bete behar dituzte. Gainera, bukaerako ebaluazioan bozeramaile bakarra egongo da talde bakoitzeko eta erantzun zuzena den artean aukeratu behar dute.</p>
<p>2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak</p>	<p>2.1 Matematikarako gaitasuna egia esan ez dutela asko landuko, behar izatekoatan tailerren batean zeharka landu ahalko dute. Dena den, tailerretako eskeletoak sortzeko kalkuluren bat egin behar badute makarroi kopurua erabiltzeko adibidez izango da, besterik ez.</p> <p>2.2 Gaitasun hau aldiz, ingurune fisikoaren alderdi naturalei eta gizakien ekintzaren ondorioz sortutakoei erreparatzen die. Hortaz, proposamenaren landuko dugun izaki bizidunen gaia bat dator gaitasun hau garatzearekin.</p>
<p>3. Gaitasun digitala</p>	<p>Gaitasun honen funtsa ikaslea sarean informazioa bilatzeko, eskuratzeko, aztertzeke, komunikatzeko eta ezagutza bihurtzekoa gai izatean datza.</p> <p>Gure kasuan, material digitala soilik irakasleak ukituko du musika lasaia jarri eta Kahoot jolasarekin erabiltzeko. Izan ere, ikasleak gorputz-ataletan zalantzak badituzte banaka erabili ahalko dute klaseko ordenagailua zalantza horiek argitzeko.</p>
<p>4. Ikasten ikastea</p>	<p>Proposamenean zehar ikasteko teknikak erabiliko dituzte; hala nola, aurreko klaseetan ikasitakoa antolatu beharko dute haien oroimena garatuz. Gainera, tailerretako galderak erantzun aurretik hipotesiak bota beharko dituzte eta amaierako hausnarketa eta erantzun logiko bat eman.</p>
<p>5. Gaitasun sozial eta zibikoak</p>	<p>Gaur egungo gizartearen errealitatea ulertzeko lankidetzaren bitartez lantzen da. Lan taldeetan ikasiko dutenez gero, lana armonia onean egitea lortu behar dute. Horretarako, gatazkak eta liskarrak konpontzeko estrategiak erabiliko dituzte, gainontzeko ikaskideekin enpatia landuz.</p>

6. Ekimena eta ekintzailletza	Nor bere burua ezagutzetik abiatuta, tailerretan zehar talde erabakiak hartzen ikasiko dute modu autonomo eta sortzailean.
7. Kultura kontzientzia eta adierazpenak	Gainerako ikaskideengandik errespetua izateko gaitasuna lantzen da, ikasle bakoitzaren kultura zein arte adierazpenak garatzen direlako. Beraz, gelako posterra eta “eskeleto artistikoak” sortzerako orduan landuko dute.

4.8 Metodologia

“60/2014 FORU DEKRETUA, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duena” adierazten du metodologia “ikasleek ikasi eta gaitasunak eta helburuak lortu ahal ditzaten irakasleek, kontzienteki eta hausnarturik, antolatzen eta planifikatzen dituzten estrategien, prozeduren eta ekintzen multzoa” dela (Nafarroako Gobernua, 2014, 3. Orr).

Lehenik, programazio didaktiko honen bidez disziplinarrekotasunaren printzipioa praktikan jarriko dugu. Honek esan nahi du ikasgaien arteko erlazioa sustatzen dela (Natur Zientziak eta Plastika) ikasleei ikuspegi orokor bat eskainiz. Bertan, ikasgai bakoitzak duen aportazioa ikusaraziko zaie haurrei 3 asteetan zehar. Hortaz, edukien lanketa modu globalizatuan lantzea proposatzen diet. Modu honetan, bi irakasgaietako eduki ezberdinak modu zuzenenean ikasten zentratuko naiz. Natur Zientzietako arlotik “izaki bizidunen” gaia landuz eta Plastikako arlotik “eskeletoa”-ren gaia hartuko dugu ere. Nahiz eta, lehen azaldu bezala, beste arlo batzuk ere kontuan izan dira ikasgai bakoitzari dagokion edukiak zeharka lantzeko.

Izaki bizidunen gaia jorrazteko, Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza proposatu dut. Orain arte ikasketa memoristikoen bidez landu ohi den gai hau, proiektu baten bidez ikasleei erakargarriagoa egingo zaielakoan nago eta ikaskuntza adierazgarria lortzeko modu oso baliagarria da. Gainera, ikasleen aniztasunari erantzuten dion metodologia denez gero, ikaslea ikaskuntza prozesuaren protagonista bihurtzen da. Horrela, ikasleen interesak kontuan hartzen dira

ikaskuntza errealitatearekin lotura zuzena izatea bilatzen delako, betiere ikasketa esanguratsua lortu ahal izateko.

Argi geratzen da beraz, POI planteamendu didaktikoa, ikasleen artean ematen den aniztasunari erantzun bat emateko modu egokia dela aurretik marko teorikoan ikusi dugun bezala. Metodologia hau garai berrietara egokitu behar den hezkuntzaren testuinguruaren barruan kokatzen gaitu eta gizartea etengabe aldatzen ari den moduan, hezkuntzan ondorioak nabaritu behar dira ere. Gizarte berriak dituen beharretara ongien moldatzen den metodologia baita eta arazoei modu eraginkorrean erantzun ahal izateko.

Metodologia berritzaile honen bidez ikasketa kooperatiboa bultzatuko da osagai ludikoa eta erraz manipulatzeko modukoa erabiliz. Gainera, talde mistoak sortu ditut lehen hezkuntzako hirugarren mailako ikasle guztiekin, modu horretan jardueren bidez lagun desberdinen parte hartzea sustatzen da. Gelako lan giro aktiboa eta kooperatiboa behar da ezagutza berriak guztion artean sortu ahal izateko. Azken finean, proiektuen bidez lan egitean gainontzeko kideetatik iritzi ezberdinak hartu eta horiek errespetatu behar dituzte eta horrek arrakastaren bidea jarraitzen du, ulermenaren kalitatearekin adieraziz.

Bestalde, proiektuan zehar tailerren bidezko lan banaketarekin arituko dira. Honako metodologia osagarri hau erabiliz, lan egiteko antolaketa estrategiko eta metodologiko bat bezala. Gure kasuan gela egun baterako eraldatuko dugu, daukagun espazioa egun batengatik tailer bat bihurtuz eta adostutako taldeak gelako txoko guztietatik txandakatzen eta malgutasunez mugitzen utziko diegularik. Honek ahalbidetzen digu espazio eta denbora berdinean lan egiteko proposamen ezberdinak planteatzea ikasleen interes eta gaitasun ezberdinei erantzuna emateko.

Ikasleen banaketa argitzeko, 22 ikasleetako bi talde heterogeneoak 5 lan talde txikietan banatuta geratuko dira; hau da, A taldetik 4-5 partaidetako 5 lan talde aterako dira eta B taldetik beste bost talde txiki. Hortaz, 5 tailer prestatuta egongo direnez, lan talde bakoitza tailer batetik bestera pasatuz joango dira irakasleak markatutako denborak errespetatuz. Talde bakoitzeko partaideak izango dira helburuak lortzeko lana planifikatzen dutenak. Azken finean, "ikasleak taldean lan egiten dute helburu berdinekin bat lortzeko, orduan haiek dira prozesua ongi garraiatu behar duten arduradunak" (Carretero, 2009).

Hurrengo taularen bidez, proposamenaren fase bakoitzean aurrera eramango den metodologia agertzen da, irakasle eta ikasleen eginbeharrak azalduz:

Taula 9. Proposamenaren metodologiak

PROPOSAMENAREN MOMENTUA	ERABILITAKO METODOLOGIA
Hasierako fasea	<p><i>TALDE TXIKIETAN LAN EGITEKO METODOLOGIA</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Irakaslea:</i> <ul style="list-style-type: none"> - Klasearen gidaria. - Kontzpetu berriak azaldu: eduki berriak eman eta garrantzitsuena arbelean apuntatu. - Talde txikiei galderak proposatu. - Zalantzei erantzuna eman. ➤ <i>Ikasleak:</i> <ul style="list-style-type: none"> - 4-5 kideetako talde heterogeneoak. - Ikasleen aurrezagutzak eta esperientziak abiapuntua izango dira. - Elkarrenganako laguntza. - Eztabaiden parte hartzaileak. - Zalantzak esan eta besteak erantzun.
Garapen fasea	<p><i>POI METODOLOGIA</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Irakaslea:</i>

	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntzailea. - Ikasleoo lana erraztu. - Zereginak eman eskusiorik gabe. ➤ <i>Ikasleak:</i> <ul style="list-style-type: none"> - 4-5 kideetako 5 talde heterogeneo. - 5 tailerretan talde bakoitza banatuta. - Taldeko kideei lagundu. - Proiektuak elkarlanean sortu. - Lan giro konstante eta arduratsua mantendu.
Sintesi fasea	<p>TALDE TXIKIETAN LAN EGITEKO METODOLOGIA</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Irakaslea:</i> <ul style="list-style-type: none"> - Laguntzailea - Denboraren antolatzailea. - Ebaluatzailea. ➤ <i>Ikasleak:</i> <ul style="list-style-type: none"> - 4-5 kideetako 5 talde heterogeneo berdinak. - Taldeka galdetegia erantzun. - Elkarri azalpenak eman. - Erantzunak talde guztiaren artean adostu. - Autoebaluazioa bete. - Talde aurkezpenak egin.

4.9. Jardueren sekuentzializazioa

A TAILERRA



Taula 10. A tailerraren sekuentzializazioa

IZENA	JARDUERA SENTSORIALA
HELBURU DIDAKTIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Zentzumen organoak ezagutzea. Giza zentzumenen lokalizazio eta eginkizunak jakitea. - Zentzumenen bidez hainbat sentsazio (soinuaren norabidea, oinarrizko 4 zapore multzoak, usainen

	<p>taldekatzea eta ukimen egiturak) identifikatzea eta dagokien zentzumenekin erlazionatzea.</p> <p>- Zentzumenak zaintzeak duen garrantzia baloratu.</p>
EDUKIAK	<p>- Gizakiaren gorputza. Gorputzaren kanpoko morfologia. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak.</p> <p>- Elkarreragineko hitzeko eta bestelako mezuak ulertzea eta adieraztea.</p>
GAITASUNAK	<p>1. Hizkuntza komunikazioa</p> <p>a. Lexikoa aberastea, eta materia edo gaiarekin zerikusia duten termino eta esamoldeak zehatz erabiltzea, unitatean ikasitakoa adierazteko.</p> <p>b. Hitz berriak ikastea eta testuinguru egokian erabiltzea, komunikazioa hobetzeko.</p> <p>2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak: Zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak</p> <p>a. Natura-baliabideak arduraz zaintzearen garrantziaz jabetzea eta baliabide horiek zaintzen laguntzeko erabaki pertsonalak hartzea.</p> <p>4. Ikasten ikastea</p> <p>a. Ikasteko teknikak erabiltzea, ikasitakoa antolatzeko eta oroimena garatzeko.</p> <p>5. Gaitasun sozial eta zibikoak</p> <p>a. Lan taldeetan, lana armonia onean egitea.</p> <p>b. Gainontzeko ikaskideekin enpatia lantzea.</p> <p>c. Gatazkak eta liskarrak konpontzeko estrategiak erabiltzea</p> <p>6. Ekimena eta ekintzailtza</p> <p>a. Nor bere burua ezagutzetik abiatuta, erabakiak hartzen erakutsiko zaie bai eskolaren esparruan, bai aisialdiko jardueretan modu autonomo eta sortzailean.</p>

<p>METODOLOGIA</p>	<p>- Tailer honetan POI metodologia erabiliko da ikasleak talde txikietan lan eginez Haurrak bere kabuz ikasteko eta talde lanean (<i>talde kooperatiboak</i>) aritzeko gaitasunean laguntzen du, beti ere ikasleen ezaugarrietara egokituz. Izan ere, tailer honetan ez dute proiektu zehatzik sortu behar; baina bai prestatuta aurkituko duten “zentzumenak ulertzearen proiektuan” taldeka parte hatu hartu beharko dute. Gainera, proiektuaren parte ere da taldeka zentzumen bakoitzari buruzko fitxa bat osatzea.</p> <p>Txoko honetan talde guztia (4-5 kideak) batera zentzumen bakoitzetik pasatzen joango da. Esaterako, A txoko honetan dastamen frogatik hasten badira, kide guztiak jarduera hau egiten egon behar dira eta fitxa guztien artean bete. Zentzumen hau egitean, ordena errespetatuz, hurrengo zentzumenera pasako dira (txoko berdinean egongo direlako zentzumen froga guztiak).</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Taldekatzea</i>: irakasleak sortutako lan-talde kooperatiboak. - <i>Talde heterogeneoak</i>: 4 edo 5 pertsoez osatutako 5 talde misto eta gaitasunen aldetik orekatuak. - <i>Talde mistoak</i>: 3. mailako bi gelatako ikaslez osatuta eta neska eta mutilak egotea talde guztietan. - <i>Irakaslearen papera</i>: jarduerak gidatu zenbait alderdietara bideratuz; subjektu bakoitzaren ekintza aktibatu eta erraztea; kide bakoitza taldearen parte kontsideratzea; jarrera irekia, malgua eta enpatikoa izatea.
<p>MATERIALA</p>	<p>Ukimenaren ariketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kutxa bat. - Objektuak: kotoia, panpin goxoa, eskumuturreko erlojua, aurikularrak, etab. <p>Entzumenaren ariketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antifazak. - Kanpaia eta pandereta. <p>Ikusmenaren ariketa:</p>



	<ul style="list-style-type: none"> - Bi kartulina tamaina ezberdineko letra eta zenbakiekin. - Bi paper zati begi bat estaltzeko. <p>Dastamenaren ariketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antifazak. - Taldeka betebeharreko fitxa. - Elikagaiak: txokolatea eta gailetak, patata frijituak, ura limoiarekin eta laranja, eskarola eta deskafeinatua. <p>Usaimenaren ariketa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Antifazak. - Usain atseginak: loreak, kolonia, ezitia eta xaboia. <p>Usain desatseginak: gazta, tipula, baratxuria eta alkohola.</p>
<p>JARDUERAREN AZALPENA</p>	<p>Txoko honetan zentzumenak landuko ditugu eta horretarako 5 jarduera motz egingo dira. Taldeak 4 edota 5 kidez osatuta dagoenez, taldekide guztiek proposatutako ideiak kontuan hartzen dituzte fitxan erantzun behar duten galderari erantzun komun bat eman ahal izateko. Gainera, zentzumen bakoitzaren ariketan haur bakoitza taldearen parte sentitzeko berak sentitzen dituen sentimenduak eta ideiak azalerratu behar ditu eta gainontzekoak berataz fida egin behar dute.</p> <p>Ukimena lantzeko ariketan, kutxa itxi bat aurkituko dute ikasleek eta honen barruan hainbat objektu sartuta egongo dira. Haurrak banan-banan eskua sartuko dute eta ukimenaren bitartez objektua kanpora atera baino lehen, zer ari diren ukitzen esan beharko dute.</p> <p>Entzumenaren ariketan, taldekide bakoitza banan-banan eta ordenean begiak estaliko dituzte antifaz batekin. Bitartean bestek kanpaia eta pandereta joko diote eta begiak estalita duenak asmatu beharko du ze distantziara eta ze norabidetik datorren soinu hori.</p> <p>Bestetik, ikusmenaren jardueran taldeko kideak binaka eta hiruak jarri beharko dira. Bata, begi bat estalita duelarik asmatu beharko ditu bere lagunak markatzen dizkion letrak eta zenbakiak. Horretarako, bikotea markatutako distantzia batean jarri beharko ditu kartulinak eta behatzarekin seinalatu letra edo zenbaki bat besteak asmatzeko eta gero rolaz aldatu.</p>

	<p>Dastamenaren ariketari dagokionez, partaideak ilara batean eseri beharko dira begiak antifaz batekin estalita dutelarik. Orduan, bakoitzaren aurrean elikagai bat aurkituko dute eta behin dastatuta, ondoan izango duten fitxa batean jarri beharko dute partaidearen izena, elikagaia eta zapore multzoaren izena (gozoa, gazia, garratza edo mnigotsa).</p> <p>Usaimenaren ariketan, taldekide guztiak banan-banan usain bat usainduko dute. Gero, hau zein den esan eta fitxa batean sailkatu beharko dute usain atsegin edo desatsegin gisa.</p> <p>Hona hemen azaldutako jarduera sentsorialen hainbat adibide:</p>  <p>Irudia 2. Dastamenaren jarduera</p>  <p>Irudia 3. Ukimenaren jarduera</p>
EBALUAZIOA	Txoko honen edukien ebaluazioa taldearen autoebaluazioa eta galdetegi baten bitartez egingo da 5. eta 6. Eranskinak.

B TAILERRA**Taula 11.** B tailerraren sekuentzializazioa

IZENA	ESKELETOAREN MURALA
HELBURU DIDAKTIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lokomozio aparatuaren atalak identifikatzea eta ezberdintzea. - Lokomozio aparatuaren hezurak eta giltzadurak ezagutzea. - Giza gorputzaren osaera ulertzea.
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gizakiaren gorputza. Gorputzaren kanpoko morfologia. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak. -Testurak: testura naturalak eta artifizialak. -Pinturako gaiak: natura hila. -Elkarreragina hitzezko eta bestelako mezuak ulertzea eta adieraztea. -Hiztegia hobetzen du ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, izenak eta eremu semantikoak ezagutzuz.
GAITASUNAK	<p>1. Hizkuntza komunikazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Lexikoa aberastea, eta materia edo gaiarekin zerikusia duten termino eta esamoldeak zehatz erabiltzea, unitatean ikasitakoa adierazteko. b. Hitz berriak ikastea eta testuinguru egokian erabiltzea, komunikazioa hobetzeko. <p>2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak: Zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Natura-baliabideak arduraz zaintzearen garrantziaz jabetzea eta baliabide horiek zaintzen laguntzeko erabaki pertsonalak hartzea. <p>4. Ikasten ikastea</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Ikasteko teknikak erabiltzea, ikasitakoa antolatzeko eta oroimena garatzeko. <p>5. Gaitasun sozial eta zibikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Lan taldeetan, lana armonia onean egitea. b. Gainontzeko ikaskideekin enpatia lantzea. c. Gatazkak eta liskarrak konpontzeko estrategiak erabiltzea

	<p>6. Ekimena eta ekintzailletza</p> <p>a. Nor bere burua ezagutzetik abiatuta, erabakiak hartzen erakutsiko zaie bai eskolaren esparruan, bai aisialdiko jardueretan modu autonomo eta sortzailean.</p>
<p>METODOLOGIA</p>	<p>Tailer honetan POI metodologia erabiliko da ikasleak talde txikietan lan eginez. Haurrak bere kabuz ikasteko eta talde lanean (talde kooperatiboak) aritzeko gaitasunean laguntzen du, beti ere ikasleen ezaugarrietara egokituz. Hortaz, B tailerrean sortu beharko duten proiektua eskeletoaren murala izango da eta nahiz eta talde txikietan eskeletoa zatika osatu, proiektua klase guztiari zuzenduta dago (guztiok proiektu berdinean parte hartuz).</p> <p>B txokoan klase guztiaren artean eskeleto sistemaren poster handi bat osatu behar dute. Horretarako, txoko bakoitzetik taldeka pasako direnez, talde bakoitzari egin behar bat emango zaio. Orduan, lehenengo taldea burua eta enborra eraikitzen hasiko da, hurrengo taldea aurrekoen lanarekin bukatu eta goiko gorputz adarrak apaintzeaz arduratu beharko dira, etab. Horrela talde guztiak txoko honetatik pasatzen direnerako, poster handia talde guztien artean osatuko dute eta lan taldeetan sortutako produkzio kolektibo bat izango da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Taldekatzea</i>: irakasleak sortutako lan-talde kooperatiboak. - <i>Talde heterogeneoak</i>: 4 edo 5 pertsonen osatutako 5 talde misto eta gaitasunen aldetik orekatuak. - <i>Talde mistoak</i>: 3. mailako bi gelatako ikasleak osatuta eta neska eta mutilak egotea talde guztietan. - <i>Irakaslearen papera</i>: jarduerak gidatu zenbait alderdietara bideratuz; subjektu bakoitzaren ekintza aktibatu eta erraztea; kide bakoitza taldearen parte kontsideratzea; jarrera irekia, malgua eta enpatikoa izatea.
<p>MATERIALA</p>	<p>Erreniega ikastetxean jarraitzen duten Natur Zientzietako testu-liburua eta lokomozio aparatuaren fitxak erabiliko dira jarduerak hau egin aurretik. 1. Eranskinean aurkitzen dira eskeleto eta giltzadura sistemak ikasteko fitxak. Hasierako fasean klase guztiaren artean landutako eskeletoaren hezurak eta giltzadurak ikusi eta gero poster kolektiboa egiteko behar den materiala hurrengoa da: Mairidire txuria giza gorputzaren siluetaekin.</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Gorputz atalen silueta. - Margoak eta errotulagailuak. - Itsasgarriak.
<p>JARDUERAREN AZALPENA</p>	<p>Txoko honetan lokomozio aparatuaren poster handi bat egingo da. Horretarako, posterraren atalak talde txikietan (4-5eko taldeak) egindako lanari esker osatuko dute. Hau da, talde bakoitza giza gorputzaren atal bat osatu beharko du: lehenik, aukeratutako zatiaren atalak aurkitu beharko dituzte, hauek margotu eta apaindu ondoren posterrean itsasi dagokion tokian. Modu honetan, 5 talde txikiak txoko honetatik pasa eta gero, lokomozio aparatuaren murala egina geratuko da.</p> <p>Hurrengo argazkietan agertzen dira eskeletoaren muralen adibideak:</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div data-bbox="608 943 893 1406" style="text-align: center;">  </div> <div data-bbox="975 943 1310 1406" style="text-align: center;">  </div> </div> <div style="display: flex; justify-content: space-around; margin-top: 10px;"> <div data-bbox="592 1442 911 1473" style="text-align: center;"> <p>Irudia 4. Giza eskeletoa</p> </div> <div data-bbox="983 1442 1329 1473" style="text-align: center;"> <p>Irudia 5. Giza eskeletoa 2</p> </div> </div>
<p>EBALUAZIOA</p>	<p>Txoko honen edukien ebaluazioa taldearen autoebaluazioa eta galdetegi baten bitartez egingo da. 5. eta 6. Eranskinetan atxikiturik daude.</p>

C TAILERRA

Taula 12. C tailerraren sekuentzializazioa

IZENA	ESKELETO ARTISTIKOAK
--------------	-----------------------------

HELBURU DIDAKTIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Giza gorputzaren osaera ulertzea. - Lokomozio aparatuaren hezurak eta giltzadurak ezagutzea. - Lokomozio aparatuaren atalak identifikatzea eta ezberdintzea.
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"> - Gizakiaren gorputza. Gorputzaren kanpoko morfologia. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak. - Testurak: testura naturalak eta artifizialak. - Pinturako gaiak: natura hila. - Elkarreragina hitzezko eta bestelako mezuak ulertzea eta adieraztea. - Hiztegia hobetzen du ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, izenak eta eremu semantikoak ezagutzuz.
GAITASUNAK	<p>1. Hizkuntza komunikazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Lexikoa aberastea, eta materia edo gaiarekin zerikusia duten termino eta esamoldeak zehatz erabiltzea, unitatean ikasitakoa adierazteko. b. Hitz berriak ikastea eta testuinguru egokian erabiltzea, komunikazioa hobetzeko. <p>2. Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak: Zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Natura-baliabideak arduraz zaintzearen garrantziaz jabetzea eta baliabide horiek zaintzen laguntzeko erabaki pertsonalak hartzea. <p>4. Ikasten ikastea</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Ikasteko teknikak erabiltzea, ikasitakoa antolatzeko eta oroimena garatzeko. <p>5. Gaitasun sozial eta zibikoak</p> <ul style="list-style-type: none"> a. Lan taldeetan, lana armonia onean egitea. b. Gainontzeko ikaskideekin enpatia lantzea. c. Gatazkak eta liskarrak konpontzeko estrategiak erabiltzea <p>6. Ekimena eta ekintzailtza</p>

	<p>a. Nor bere burua ezagutzetik abiatuta, erabakiak hartzen erakutsiko zaie bai eskolaren esparruan, bai aisialdiko jardueretan modu autonomo eta sortzailean.</p>
<p>METODOLOGIA</p>	<p>Tailer honetan POI metodologia erabiliko da ikasleak talde txikietan lan eginez. Haurrak bere kabuz ikasteko eta talde lanean (<i>talde kooperatiboak</i>) aritzeko gaitasunean laguntzen du, beti ere ikasleen ezaugarrietara egokituz. Kasu honetan, talde txikietan sortu behar duten proiektua “eskeleto artistikoak” dira; hau da, eskeleto bat sortzea talde bakoitzeko, klase guztiaren artean 5 eskeleto lortuz.</p> <p>C tailerrean 4 edo 5 kideetako taldeak eskeleto artistiko bat sortu beharko dute. Eskeleto bat talde bakoitzeko. Beraz, taldean kooperatiboki lan egin beharko dute partaide guztien lana beharrezkoa eta ezinbestekoa delako eskeleto bakoitza islatzeko taldearen kreatibitatea. Hortaz, eskeleto bakoitza ezberdina aterako da nahiz eta aurrean hainbat adibide izan taldea laguntzeko proiektzio finala sortzen.</p> <p>Eskeletoaren estiloa eta erabiliko dituzten materialak erabakitzeko talde osoaren iritzia eta adostasuna bilatuko da. Guztien iritziei balio berdina emanez eta bakoitzaren sormen eraikitzaileari esker taldearen produktu final propioa izatea lortuko dute.</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Taldekatzea</i>: irakasleak sortutako lan-talde kooperatiboak. - Talde heterogeneoak: 4 edo 5 pertsonen osatutako 5 talde misto eta gaitasunen aldetik orekatuak. - Talde mistoak: 3. mailako bi gelatako ikasleak osatuta eta neska eta mutilak egotea talde guztietan. - Irakaslearen papera: jarduerak gidatu zenbait alderdietara bideratuz; subjektu bakoitzaren ekintza aktibatu eta erraztea; kide bakoitza taldearen parte kontsideratzea; jarrera irekia, malgua eta enpatikoa izatea.
<p>MATERIALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - 1. Eranskinetako fitxak - Kartulinak eskeletoaren siluetarekin (x12) - Makarroiak. - Txotx kotoidunak. - Plastilina urdina.

	<ul style="list-style-type: none"> - Itsasgarriak. - Guraizeak.
<p>JARDUERAREN AZALPENA</p>	<p>C tailerraren izena esaten digun moduan, ikasleak talde txikietan jarrita giza eskeletoak sortu beharko dituzte. Horretarako, talde bakoitzari kartulina bat emango zaio eskeletoaren silueta egina dutelarik. Honako hau gida moduan izanda, taldean adostu beharko dute ze material erabili eta nola apainduko duten haien eskeletoa. Behin eskeletoa sortuta dutelarik, aurkitzen dituzten giltzadurak ere markatu beharko dituzte modu nabarmen batean (mahaian aurkituko duten materialarekin). Dena den, giltzadurak markatzen D tailerrean bukatu ahalko dute, denboraz larri ibiltzekotan.</p> <p>Hauk dira ikasleei eskainiko zaizkien giza eskeletoen adibideak:</p>  <p style="text-align: center;">Irudia 6. Eskeleto artistikoak</p>
<p>EBALUAZIOA</p>	<p>Txoko honen edukien ebaluazioa taldearen autoebaluazioa eta galdetegi baten bitartez egingo da. Bi hauek 5. eta 6. eranskinetan aurkitu daitezke.</p>

D TAILERRA

Taula 13. D tailerraren sekuentzializazioa

<p>IZENA</p>	<p>HEZURRAK ETA GILTZADURAK IKASTEN</p>
---------------------	--

HELBURU DIDAKTIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> - Lokomozio aparatuaren hezurak eta giltzadurak ezagutzea. - Lokomozio aparatuaren atalak identifikatzea eta ezberdintzea.
EDUKIAK	<ul style="list-style-type: none"> -Gizakiaren gorputza. Gorputzaren kanpoko morfologia. Bizitzaren etapetan gertatzen diren aldaketak. - Elkarreragina hitzezko eta bestelako mezuak ulertzea eta adieraztea. - Hiztegia hobetzen du ahozko eta idatzizko ekoizpenetan, izenak eta eremu semantikoak ezagutzuz.
